


**ORENDAINGO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA,  
LURZORU URBANIZAEZINEAN KOKATUTAKO NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINZAKO USTIAPENEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK  
ALDATZEN DITUENA**

**INGURUMEN-AGIRI ESTRATEGIKOA**



2019ko ekaina

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN HELBURU ETA IRIZPIDE NAGUSIAK .....	3
3. PLANGINTZAREN EDUKIA ETA ALTERNATIBAK.....	4
3.1.  Proposamenaren edukia.....	4
3.2.  Aintzak hartutako hautabideak.....	14
4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAK IZANGO DUEN GARAPENA.....	16
5. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA .....	17
5.1.  Jardun-esparrua eta kokapena .....	17
5.2.  Klima .....	18
5.3.  Airearen kalitatea .....	18
5.4.  Orografia' .....	18
5.5.  Geologia eta geomorfologia .....	19
5.6.  Edafologia eta gaitasun agrologikoa.....	19
5.7.  Hidrologia.....	21
5.8.  Landaretza eta lurzoruaren erabilerak .....	24
5.9.  Intereseko fauna .....	27
5.10.  Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea .....	29
5.11.  Interes Naturalistikoko eremuak .....	30
5.12.  Paisaia .....	31
5.13.  Kultur ondarea .....	33
5.14.  Sozioekonomia.....	35
5.15.  Ingurumen-prozesu eta arriskuak.....	35
6. AURREIKUS DAITEZKEEN INGURUMEN ONDORIOEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA .....	41
6.1.  Lurzoruaren okupazioa .....	42
6.2.  Lur gaineko uren inpaktua .....	42
6.3.  Landarediaren gaineko eragina .....	43
6.4.  Faunaren gaineko eragina.....	43
6.5.  Korridore ekologikoaren gaineko eragina.....	44
6.6.  Interes naturalistikoko eremuen gaineko eragina.....	44
6.7.  Paisaiaren gaineko eragina .....	45
6.8.  Kultura ondareen gaineko eragina .....	45
6.9.  Higadura-arriskua.....	45
6.10.  Uholde arriskua.....	45
6.11.  Zarata eta kutsadura atmosferikoa (obrak).....	46
6.12.  Zarata (ustiapen garaia).....	46
6.13.  Sortutako hondakinak (obrak eta ustiapen garaia) .....	46
6.14.  Baliabideen kontsumoa handitzea (obrak eta ustiapen garaia) .....	47
6.15.  Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina .....	47
6.16.  Jasangarritasun energetikoa.....	47
7. PLAN SEKTORIAL ETA LURRALDE PLAN KONKURRENTEEN GAINEAN AURREIKUS DAITEZKEEN ONDORIOAK.....	49
7.1.  EAEko Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroak .....	49
7.2.  Toloserriko (Tolosaldea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatikako Plana.....	50
7.3.  Lurralde Plan Sektorialak (LPS) .....	54
7.4.  Udal plangintza .....	59

8. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAK JARRAITU BEHARREKO INGURUMEN EBALUAKETA ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURAREN ZURIBIDEA .....	63
9. AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK AUKERATZEKO ARRAZOIEN LABURPENA .....	67
10. PROPOSATUTAKO NEURRI PREBENTIBO, ZUZENTZAILE ETA KONPENSATZAILEAK, KLIMA- ALDAKETA KONTUAN IZANDA.....	68
11. PLANAREN INGURUMEN-JARRAIPENERAKO PROPOSATUTAKO NEURRIAK.....	71

#### **I.Eranskina. Planoak**

- 1.planoa. Ingurumen baldintzatzailleak
- 2.planoa. Naturgune babestuak

## 1. SARRERA

Orendaingo Arau Subsidiarioen (aurrerantzean AA.SS) aldaketa puntualaren helburua egungo hirigintza araudian zehazten diren Lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko hainbat baldintza egokitzea da.

Orendaingo udalerrian indarrean dagoen araudia 2003ko Arau Subsidiarioen Testu Bateratua da, 2003ko urtarrilaren 14ko Osoko Bilkurak behin-behingo onartu zuena eta 2003ko uztailaren 29an Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu zuena (GAO 2013/10/16). Geroztik, AA.SSek aldaketak jasan dituzte: 2007ko azaroaren 13an "Orendaingo Eskolapioak-1 6. jarduera unitateari eta G.10 gizarte ekipamendu sistema orokorrari dagokiena" eta 2016ko maiatzaren 10ean, "Hiri lurzoru finkatuan dauden zenbait eraikinetan ahalbidetutako gehienezko etxebizitza kopuruari buruzkoa".

Indarrean dagoen araudi honek oztopatu egiten du gaur egun udalerriko nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko ustiapenen bilakaera, hauen errentagarritasuna eta lehiakortasuna bermatu ahal izateko, araudiak ustiapenen tamainaren eta kokapenaren inguruan ezartzen dituzten mugak zabaldu beharko ditu. Aipatzekoa da, indarrean dauden AA.SSak onartzerako, Orendaingo abeltzain ustiapen nagusienetako bik (Larraspi eta Orbelo) arauak ezartzen duten gehienezko 1.500 m<sup>2</sup>-ko okupazioaren mugan edo hura gainditua zutela dagoeneko. Horrez gain, udalerriko zenbait ustiapen garrantzitsu (Larraspi eta Zelaieta besteak beste) "D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko gune" moduan sailkatutako lurretan kokatuta daudela, non egungo AA.SSek eraikin berriak eraikitzea galarazten dute. Beraz, AA.SSen aldaketa honek, aurrez aipatutako ustiapen horien eta etorkizunean egin daitezkeen hirigintza aldetiko sostengu legala bermatuko du.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren arloko araudia honako lege honetan jasota dago: *Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta planen eta programen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan*.

Aipatutako araudiaren arabera, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuaren prozesua jarraitu beharko du (ikus 8. Atala). Gainera, Orendaingo Udalak, Arau subsidiarioen aldaketaren Organo sustatzaileak, arau aldaketa honek ingurumen-ebaluazio estrategikoa igaro behar ote duen kontsulta egiten dio Ingurumen-organoari (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia). Zuzendaritza honek ondorioztatzen du aldaketa horrek ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraitu beharko duela abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.a) edo 6.2.c) artikuluen arabera.

Hala ere, kontuan eduki behar da ingurumen organoak, ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuari amaiera emateko egiten duen ingurumen eraginei buruzko txostenean, Arau Subsidiarioen Aldaketak ohiko prozedura osatu behar duela ebatzi dezakeela, ingurunearen gainean eragin esanguratsuak izan ditzakeela uste baldin badu.

Dokumentu hau ingurumen-agiri estrategikoa da, eta *abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikuluan* ezarritako edukiari erantzuten dio. Dokumentu honek, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaerarekin batera, Arau Subsidiarioen aldaketaren zirriborroa eta legeria sektorialak eskatzen



duen dokumentazioa erantsita, organo substantiboak ingurumen-organoari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren hasiera eskatu ahal izango dio (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza).

Dokumentu hau Ekolur Ingurumen Aholkularitzako lantaldeak egin du, honako tekniko hauek osatua: Tomas Aranburu Calafel (Nekazaritza ingeniari teknikoa, Lurralde-antolakuntzan aditua) eta Alexandra Egunez Zalakain (Biologian graduatua eta Biodibertsitaterako, Funtzionamendu eta Ekosistemen Kudeaketa Masterra). Egileen nortasun-agiri nazionalaren zenbakia aparteko dokumentu batean erantsi da, informazio osagarri eta konfidentzial gisa.

## 2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN HELBURU ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

AA.SSen aldaketaren memorian azaltzen den moduan, aztergai den aldaketa puntual honen helburu orokorrak ondorengoak dira:

- Orendaingo landa inguruaren biziraupena eta gizarte-dinamismoa bultzatuko duen biztanleria egonkor eta gaztea (ahal den neurrian) erakartzea.
- Orendaingo landa inguruaren ustiapen jasangarria bultzatzea (ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokionean).

Horretarako, AA.SSen Aldaketa honen helburu nagusia da, egungo beharrianetara egokitzea egungo udal hirigintza-araudiak lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei ezartzen dizkien hainbat baldintza edo muga. Horrela egungo ustiapenen eta sor daitezkeen etorkizuna bermatzeko beharrezko diren eskakizunei erantzuna emateko hirigintza araudia izatea ahalbidetuz.

Nagusiki, baldintza horiek ustiapenaren tamainarekin eta berau kokatzen den lursailarekin lotuta daude, egun ondoren aipatzen diren arazoak konpondu nahi baitira:

- Inguruko herrietako udal araudiak aztertuta eta inguruko nekazari eta abeltzainekin izandako hartu-emanen ostean ondorioztatu da, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen azalerak murriztegiak gertatzen direla egungo ustiapen moderno eta jasangarri baten funtzionamendu egoki baterako.
- Gainera, udalerrian kokatutako zenbait ustiapenek 2003ko AA.SSak indarrean sartu aurretik gaindituta zuten honek ezartzen duen tamainaren muga.
- Orendaingo zenbait ustiapen garrantzitsu "D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko gunen" bezala sailkatutako eremuan kokatzen dira, non indarrean dagoen araudiak debekatu egiten duen eraikin berriak gauzatzea.

### 3. PLANGINTZAREN EDUKIA ETA ALTERNATIBAK

#### 3.1. Proposamenaren edukia

Atal honetan, modu laburrean deskribatzen da "Orendaingo AA.SS.-en Aldaketa Puntuala, lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko baldintzak aldatzen dituen" hirigintza dokumentuko memoriak jasotzen duena.

Aipatu den moduan, Orendaingo AA.SS.-en Aldaketaren helburu nagusia, egungo hirigintza-araudian lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenei ezartzen zaizkien hainbat baldintza handitzea da, horrela ustiapenen gaurko beharrianetara egokitzeko.

Hori horrela, araudian proposatzen diren aldaketak ustiapenen tamainari eta hauen kokapenari lotutakoak dira.

Ustiapenen tamainari dagokienez, ondorengo aldaketak proposatzen dira landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoei buruzko 71. Artikuluaren zenbait puntutan:

- Gaur egungo arauen arabera, ustiapen batek izan dezakeen eraikinaren gehienezko okupazio azalera 1.000 m<sup>2</sup> -pertsona bakarrekoe- eta 1.500 m<sup>2</sup> -kooperatibek- izango litzateke. AA.SS.-en Aldaketan, muga hori 8.000 m<sup>2</sup>-raino zabaltzea aurreikusten da, betiere, ustiapena sustengatzen duen lursailaren tamainaren arabera azalera hori egokituz.
- Bestetik, 71. artikuluko horretako a) atalean aipatzen den 5.000 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko lursaila eraikina beregan jasoko duen lursaila dela zehaztea egoki kontsideratu da; lursail minimoa zehazterakoan, indarrean dagoen legerian xedatutakoari lotuz, eta ekarpen gisa jarritako finka etena izan daitekeela argituz.
- Arau Subsidiarioak indarrean izan diren urte hauetan ustiapenetan txertatu diren produkzio sistemek eta eskakizun higieniko-sanitario handiagoek, artikuluko honetako e) eta f) atalek mugatzen duten gehienezko profil eta altuerak egokitzera behartzen dute.

Ustiapenen kokapenari dagokionez, 11. artikuluko, eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera arautzen duenean aldaketak proposatzen dira:

- Indarrean dagoen legedian, "11.2.D. Landa Guneak - D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak" deiturikoetan debekatu egiten da eraikin berririk gauzatu ahal izatea. Aurretik aipatu den moduan, gaur egun zenbait ustiapen garrantzitsu eremu honetan kokatzen dira eta, beraz, salbuespen gisa bada ere, beharrezko ikusten da egun gune horretan kokatutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen horien biziraupena bermatuko duten beharrezko handitze lanak baimentzea.

Bestalde, AA.SSen Aldaketa honen xede diren Abeltzaintza eta Nekazaritza ustiapenekin duten lotura kontuan hartuta, araudian beste egokitzapen batzuk txertatzen dira:

- 66.artikulua. Nekazaritza Ustiapena. Definizioa: Egungo Arauetako artikulua honetan aipatzen den araudia, eta araudi horretatik eratorritako nekazaritza ustiapena kontzeptuaren definizioa eguneratzen da.
- 67. Artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea: Kontuan izanda egungo gizartearen bizitza modu eta eredu ezberdinak, gehiegizkotzat kontsideratzen da baserri bakoitzaren barne banaketaren ondorioz sortutako etxebizitza bakoitzak gutxienez 150 m<sup>2</sup>-ko azalera izateko eskakizuna. Hala ere, gehiegizko banaketa ekidin asmoz, 150m<sup>2</sup>-ko gutxienezko azalera, baserriko etxebizitza guztien batez bestekoari aplikatzea proposatzen da.
- 69. Artikulua. Baserri berrien eraikuntza: Laborantza ustiapen berriak eraikitzeko egun eskatzen den gutxienezko 5 Ha-ko lursaila gehiegizko kontsideratzen da. Hori dela eta, gaiaren inguruan indarrean dagoen legediak, 168/1997 Dekretuak dioena jarraituz, gutxienezko lursaila 1 Ha-ra jaistea proposatzen da.

Hala ere, gutxitze horrek ekarri dezakeen gehiegizko ustiapen berrien eraikuntza mugatzeko, eraikina duen lursail jarraituaren gutxienezko azalera, 3.000tik 5.000 m<sup>2</sup>-ra igotzea proposatzen da.

1. taula: .Egun indarrean dauden arau subsidiarioetako ordenantzak eta proposatzen diren aldaketak.

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<b>ORDENANTZAK</b>	
<b>BIGARREN ATALA</b>	
<b>2.2. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA</b>	
<b>11. Artikulua. Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera.</b>	
<p>(...)</p> <p><b>11.2.D. Landa Guneak</b></p> <p><b>- D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak.</b></p> <p><i>Berez, gune horiek nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta babestu egin behar dira.</i></p> <p><i>Nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta II.2 planoan ikus daitezke.</i></p> <p>—Eraikuntzarako baldintzak:</p> <p><u>Ezin da eraikin berririk gauzatu inola ere.</u></p> <p>—Erabilerarako baldintzak:</p> <p>*Erabilera lagunduak:</p> <p><i>Nekazaritza jorratzeko erabilerak.</i></p> <p><i>Ingurumena babestea eta berau hobetzea helburu duten erabilerak</i></p> <p>*Erabilera onargarriak:</p> <p><i>Abeltzaintzako erabilera zabalak.</i></p> <p><i>Lurraldeko osagaien erabilera.</i></p> <p><i>B motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoan erabilera.</i></p>	<p>(...)</p> <p><b>11.2.D. Landa Guneak</b></p> <p><b>- D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak.</b></p> <p><i>Berez, gune horiek nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta babestu egin behar dira.</i></p> <p><i>Nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta II.2 planoan ikus daitezke.</i></p> <p>—Eraikuntzarako baldintzak:</p> <p><u>Ezin da eraikin berririk gauzatu inola ere.</u></p> <p><u>Salbuespen qisa, jada gune mota honetan kokatutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenen handitzea baimentzen da, betiere, D.10 Oronen Landa guneak kalifikaziodun lurretan handitze hori burutzea teknikoki eta ekonomikoki bideraezina dela justifikatzen bada.</u></p> <p><u>Kasu horietan, eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-an esaten den bezala, Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira Sektore-Eragina Ebaluatzeko Protokoloan SEEP adierazitako moduan (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko I.1 Eranskina).</u></p> <p><u>Eraikuntza horietarako baimenak lortzeko, dagozkien udal baimenaz gain, indarrean daqoen araudian ezarritako irizpideen arabera beharrezko diren gainerako txosten eta baimenak izan beharko dira.</u></p> <p>—Erabilerarako baldintzak:</p>

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<p><i>Basoen erabilerari dagokionez, Aurretik Nekazaritza eta Paisajea babesteko lurretako Landaketei buruzko Plan Berezia onartu behar da eta bertan azaldutako baldintzak bete behar dira.</i></p> <p><i>*Erabilera debekatuak:</i></p> <p><i>Aurreko ataletan aipatu ez diren beste guztiak.</i></p> <p><i>(...)</i></p>	<p><i>*Erabilera lagunduak:</i></p> <p><i>Nekazaritza jorratzeko erabilerak.</i></p> <p><i>Ingurumena babestea eta berau hobetzea helburu duten erabilerak.</i></p> <p><i>*Erabilera onargarriak:</i></p> <p><i>Abeltzaintzako erabilera zabalak.</i></p> <p><i><u>Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak (egungoak).</u></i></p> <p><i><u>Abeltzaintza erabilera erdi-zabal eta trinkoak (soilik egungo nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan).</u></i></p> <p><i>Lurraldeko osagaien erabilera.</i></p> <p><i>B motako zerbitzu ezlinealen instalazio teknikoen erabilera.</i></p> <p><i>Basoen erabilerari dagokionez, Aurretik Nekazaritza eta Paisajea babesteko lurretako Landaketei buruzko Plan Berezia onartu behar da eta bertan azaldutako baldintzak bete behar dira.</i></p> <p><i>*Erabilera debekatuak:</i></p> <p><i>Aurreko ataletan aipatu ez diren beste guztiak.</i></p> <p><i>(...)</i></p>
<b>HIRUGARREN ATALA</b>	
<b>3.3. LUR HIRITARREZINAREN HIRIGINTZA ARAUBIDEA</b>	
<b>3.3.3. OROREN LUR HIRITARREZINARI DAGOKION ARAUDIA</b>	
<b>66. Artikulua. Nekazaritza ustiapena: Definizioa.</b>	
<p><i>1. Nekazaritza ustiapena eta nekazaria (nekazaritza ustiapenaren jabea) kontzeptuak honako hauen arabera mugatuko dira: Uztailaren 4ko 19/1995 Nekazaritza Ustiapenen Modernizazioari buruzko Legearen 2. artikulua; eta uztailaren 8ko</i></p>	<p><i>1. Nekazaritza ustiapena eta nekazaria (nekazaritza ustiapenaren jabea) kontzeptuak honako hauen arabera mugatuko dira: Uztailaren 4ko 19/1995 Nekazaritza Ustiapenen Modernizazioari buruzko Legearen 2. Artikulua eta abenduaren 23ko</i></p>

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<p>168/1997 Dekretuaren 2.1.1. eta 2.1.2. artikulua. Azken horien bidez Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lehentasuneko Nekazaritza Ustiapenak arautzen dira eta EAE-ko Lurralde Historiko ezberdinetan nekazaritzan aritzeko lursailen gutxieneko neurriak finkatzen dira.</p> <p>Horrela, nekazaritza ustiapena zera izango da, jabeek nekazaritza ekoizpenerako enpresa gisa antolatutako eskubide eta ondareen multzoa. Xede nagusia merkatu mailan etekinak erdiestea litzateke. Aldi berean, nekazaritza ustiapenak teknologia eta ekonomia mailan batasuna agertu behar du eta ekoizpenerako baliabide berdinak erabili behar ditu. Kudeaketa ere bakarra izan behar du.</p> <p>(...)</p>	<p><u>17/2008 Legearen, Nekazaritza eta Elikagaiqintza Politikakoaren, 4.4 eta 4.11 artikulua.</u></p> <p><u>Horrela, nekazaritza ustiapena zera izango da, titularrak (pertsona fisikoa zein juridikoa) nekazaritza-jardueraren baitan enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideak, baldin eta unitate tekniko-ekonomikoa osatzen badute, eta helburua, batik bat, merkaturatzea baldin bada. Zenbait kasutan, gerta liteke laborantzarako azalerak gutxieneko neurri jakina (lurra lantzeko unitate minimoa) betetzeko exijitzea.</u></p> <p>(...)</p>
<p><b>67.Artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea.</b></p>	
<p>Baserrien eraberritzeak eta birgaitzeak lehentasun osoa izango dute bertako landa eraikinarekin lotutako lanak burutzean.</p> <p>1.Oro har, baserriak eraberritzean eta birgaitzean horien ezaugarri nagusiak errespetatu egin beharko dira.</p> <p>2.Kanpoko osagaiei dagozkien lanak.</p> <p>Kanpo aldean baserriak jatorriz zuen itxura mantenduz burutuko dira, hau da, bolumenak, estalkiak, hegalkinak, etxaurreko baoak, eta abar.</p> <p>Eraikinean aurki daitezkeen balio bereziko osagai arkitektoniko edo artistiko guztiak mantenduko dira, esaterako, armarriak, ateburuak, etxaurrearen egituraketa, eta abar.</p> <p>Kanpoko materialek arau hauetako 49. artikulua xedatutakoa bete beharko dute. Kanpoko zenbait osagai alda daitezke, hots, arotzeria, estalkia, eta abar. Baina jatorriz baserriak zituen osagai bereizgarriak eta egituraketa nagusia mantendu behar izango dira.</p> <p>3.Baserriaren birgaitze osoa burutzean ondoko txabolak eta estalgarriak kendu egingo dira, eraikinaren funtzionaltasuna hobetzearen, nekazaritza ustiapena eta horren kanpoko itxura kontuan hartuz.</p>	<p>Baserrien eraberritzeak eta birgaitzeak lehentasun osoa izango dute bertako landa eraikinarekin lotutako lanak burutzean.</p> <p>1.Oro har, baserriak eraberritzean eta birgaitzean horien ezaugarri nagusiak errespetatu egin beharko dira.</p> <p>2.Kanpoko osagaiei dagozkien lanak.</p> <p>Kanpo aldean baserriak jatorriz zuen itxura mantenduz burutuko dira, hau da, bolumenak, estalkiak, hegalkinak, etxaurreko baoak, eta abar.</p> <p>Eraikinean aurki daitezkeen balio bereziko osagai arkitektoniko edo artistiko guztiak mantenduko dira, esaterako, armarriak, ateburuak, etxaurrearen egituraketa, eta abar.</p> <p>Kanpoko materialek arau hauetako 49. artikulua xedatutakoa bete beharko dute. Kanpoko zenbait osagai alda daitezke, hots, arotzeria, estalkia, eta abar. Baina jatorriz baserriak zituen osagai bereizgarriak eta egituraketa nagusia mantendu behar izango dira.</p> <p>3.Baserriaren birgaitze osoa burutzean ondoko txabolak eta estalgarriak kendu egingo dira, eraikinaren funtzionaltasuna hobetzearen, nekazaritza ustiapena eta horren kanpoko itxura kontuan hartuz.</p>




HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<p>4.Etxebizitzen gehienezko kopurua.</p> <p>Eraberritutako baserriak gehienez jota 4 etxebizitza izan ditzake, eta behin horiek gauzatu ostean, horien izena Jabegoaren Erroldan aurkeztu beharko da nekazaritzako ustiapenari erantsitako eraikin gisa, edo horri itsatsia, betiere honako irizpide hauen arabera jokatzuz:</p> <p>—Baimendutako etxebizitzen gehienezko kopurua: 4 etxe.</p> <p>—Etxebizitza bakoitzean <u>gutxienez</u> eraikitako azalera: 150 m<sup>2</sup>(a).</p> <p>Kopuru horiek zehazterakoan ez dira aintzat hartuko eraikin berean dauden etxebizitzak, baina erroldan ustiapen horrekin lotuta ez daudela agertzen den kasuetan.</p> <p>5.Jatorrizko baserria handitzeko lan bereziak.</p> <p>Birgaitzearekin lotuta egonez gero, baserria handitzeko lanak burutu ahal izango dira, baldin eta eraikuntza berria baserriari itsatsita gelditzen bada eta jatorrizko eraikinaren ezaugarriekin bat badator. Erantsitako eraikuntzen gehienezko azalera, gehi jada bertan dugun azalera, ezin izango du 300 m<sup>2</sup> (a) baino gehiago izan.</p>	<p>4.Etxebizitzen gehienezko kopurua.</p> <p>Eraberritutako baserriak gehienez jota 4 etxebizitza izan ditzake, eta behin horiek gauzatu ostean, horien izena Jabegoaren Erroldan aurkeztu beharko da nekazaritzako ustiapenari erantsitako eraikin gisa, edo horri itsatsia, betiere honako irizpide hauen arabera jokatzuz:</p> <p>—Baimendutako etxebizitzen gehienezko kopurua: 4 etxe.</p> <p>—Etxebizitzen <u>gutxienezko batzbesteko</u> eraikitako azalera: 150 m<sup>2</sup>(a).</p> <p>Kopuru horiek zehazterakoan ez dira aintzat hartuko eraikin berean dauden etxebizitzak, baina erroldan ustiapen horrekin lotuta ez daudela agertzen den kasuetan.</p> <p>5.Jatorrizko baserria handitzeko lan bereziak.</p> <p>Birgaitzearekin lotuta egonez gero, baserria handitzeko lanak burutu ahal izango dira, baldin eta eraikuntza berria baserriari itsatsita gelditzen bada eta jatorrizko eraikinaren ezaugarriekin bat badator. Erantsitako eraikuntzen gehienezko azalera, gehi jada bertan dugun azalera, ezin izango du 300 m<sup>2</sup> (a) baino gehiago izan.</p>
<p><b>69.Artikulua. Baserri berrien eraikuntza.</b></p>	
<p>1.Udalak, lanak gauzatzeko baimenari buruzko erabakia hartu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarenhalabeharrezko txostena eskatuko du.</p> <p>2.Gutxieneko lursaila. Laborantza ustiapena berria gauzatzeko lursailak gutxienez bost hektarea (5 Ha.) izan beharko ditu, baso, abere eta nekazaritza ustiapenei dagokienez. Dena den, Gipuzkoako Foru Aldundiak, zioak azalduz, aipatutako azalera handiagoa edo txikiagoa muga dezake aurkeztutako ustiapenaren ekoizpenaren bideragarritasuna eta baldintza ekonomikoak aintzat hartuz.</p> <p>Ez da beharrezkoa lur azalera osoa lursail bakar batean bilduta egotea, baina kasu guztietan, eraikina duen lursailaren gutxieneko azalera <u>3.000 m<sup>2</sup></u> koa izango da.</p> <p>3.Gehienezko etxebizitza kopurua.</p>	<p>1.Udalak, lanak gauzatzeko baimenari buruzko erabakia hartu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarenhalabeharrezko txostena eskatuko du.</p> <p>2.Gutxieneko lursaila. Laborantza ustiapena berria gauzatzeko lursailak <u>gutxienez indarrean dagoen legediak lurra lantzeko unitate minimo bezala finkatutakoa (1 Ha) izan beharko du</u>, baso, abere eta nekazaritza ustiapenei dagokienez. Dena den, Gipuzkoako Foru Aldundiak, zioak azalduz, aipatutako azalera handiagoa edo txikiagoa muga dezake aurkeztutako ustiapenaren ekoizpenaren bideragarritasuna eta baldintza ekonomikoak aintzat hartuz.</p> <p>Ez da beharrezkoa lur azalera osoa lursail bakar batean bilduta egotea, baina kasu guztietan, eraikina duen <u>lursailaren gutxieneko azalera 5.000 m<sup>2</sup></u> koa izango da.</p> <p>3.Gehienezko etxebizitza kopurua.</p>

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<p><i>Ustiapenan edo baserrian gehienez jota bi (2) etxebizitza gauza daitezke. Hori eraiki ondoren, Jabego Erroldaritzan izena eman beharko dute, ustiapenari uztartuta eta horrekiko inolako bereizketarik ez duela adieraziz.</i></p> <p><i>4.Eraikuntza berriko oin bakoitzaren gehienezko erabilera.</i></p> <p><i>Eraikuntza berrian, oin bakoitzari dagokionez, erabil daitekeen gutxieneko eta gehienezko azalerak honako hauek dira: 150 m<sup>2</sup> eta 300 m<sup>2</sup>.</i></p> <p><i>5.Mugetarako tartekak.</i></p> <p><i>Eraikuntza berria eta instalazio osagarriak lursailaren mugetatik zortzi (8) metrotara ezarriko dira gutxienez.</i></p> <p><i>6.Gehienezko altuera eta oin kopurua.</i></p> <p><i>Eraikinak gehienez jota 2 solairu izango ditu sestratik gora (Beheko solairua, lehenengo solairua), soto edo erdisotoa ere gauza daitekeelarik, baita estalpean gerta daitezkeen guneak erabili ere.</i></p> <p><i>Eraikuntza berriaren gehienezko altuera 7,5 metrokoa izango da hegalkin horizontaletan eta 9,5 metrokoa goihabeetan, biak ere inguruko lurra eta eraikuntzaren artean tarte gehien dagoen tokian neurtuak. Udalak behar den bezala justifikatu ostean (aldapa handiko lurrak) neurri horiek handi ditzake.</i></p>	<p><i>Ustiapenan edo baserrian gehienez jota bi (2) etxebizitza gauza daitezke. Hori eraiki ondoren, Jabego Erroldaritzan izena eman beharko dute, ustiapenari uztartuta eta horrekiko inolako bereizketarik ez duela adieraziz.</i></p> <p><i>4.Eraikuntza berriko oin bakoitzaren gehienezko erabilera.</i></p> <p><i>Eraikuntza berrian, oin bakoitzari dagokionez, erabil daitekeen gutxieneko eta gehienezko azalerak honako hauek dira: 150 m<sup>2</sup> eta 300 m<sup>2</sup>.</i></p> <p><i>5.Mugetarako tartekak.</i></p> <p><i>Eraikuntza berria eta instalazio osagarriak lursailaren mugetatik zortzi (8) metrotara ezarriko dira gutxienez.</i></p> <p><i>6.Gehienezko altuera eta oin kopurua.</i></p> <p><i>Eraikinak gehienez jota 2 solairu izango ditu sestratik gora (Beheko solairua, lehenengo solairua), soto edo erdisotoa ere gauza daitekeelarik, baita estalpean gerta daitezkeen guneak erabili ere.</i></p> <p><i>Eraikuntza berriaren gehienezko altuera 7,5 metrokoa izango da hegalkin horizontaletan eta 9,5 metrokoa goihabeetan, biak ere inguruko lurra eta eraikuntzaren artean tarte gehien dagoen tokian neurtuak. Udalak behar den bezala justifikatu ostean (aldapa handiko lurrak) neurri horiek handi ditzake.</i></p>
<p><b>71.Artikulua. Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapena trinkoak.</b></p>	
<p><i>Abeltzaintzako ustiapena eta landetxeen eraikuntzak honako baldintza hauek bete beharko ditu:</i></p> <p><i>a) Gutxieneko lursaila: 5.000 m<sup>2</sup> onibar bakar batean.</i></p> <p><i>b) Azalerari dagokionez, gehienez jota 1.500 m<sup>2</sup> erabiliko dira nekazari batek baino gehiagok osatutako elkarteetan eta kooperatiben kasuan. Pertsona bakar baten kasuan, gehienez jota azaleraren 1.000 m<sup>2</sup> erabili ahal izango ditu.</i></p> <p><i>c) Lursailaren ezaugarriak. Eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean egon behar du, gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea.</i></p>	<p><i>Abeltzaintzako ustiapena eta landetxeen eraikuntzak honako baldintza hauek bete beharko ditu:</i></p> <p><i>a) <u>Gutxieneko lursaila: indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituko zaio, baita arlo horretan eskumena duen administrazio-erakundeak, ezarri nahi den ustiapenaren ezaugarriak kontuan harturik, kasuan-kasuan ezartzen duenari ere.</u></i></p> <p><i><u>Lursail minimo horren azalera, betiere, laborantzako unitate minimo gisa finkatutakoa baino handiagoa izango da. Ondorio horietarako, ekarpen gisa jarritako finka etena izan daiteke, eta askotariko erabilera globaleko zonetan kokatutako lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lur-eremuak har ditzake bere</u></i></p>

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
<p>d) <u>Tarteak.</u>                      —Hirigunetik 250 metrora, Jarduera Arriskutsu, Kaltegarri, Osasungaitz eta Nekagarriei buruzko Araudiak tarte handiagoa eskatzen ez badu.                      —Landetxekoa ez den beste edozein etxebizitzatik 100 metrora gutxienez.                      —Lursailaren mugatik 8 metrora.</p> <p>Jada bertan dauden ustiapenen kasuan, berauek handitzeko lanak bertan gauzatu ahal izango dira, nahiz eta aurretik aipatu ditugun tarte horiek betetzen ez badituzte ere. Hala eta guztiz ere, tarte horiek ezin izango dira txikiagoak izan eta eraikin horiek ezin dira antolamendutik kanpo geratu.</p> <p>e) <u>Profila:</u> Beheko solairua + estalpekoa.</p> <p>f) <u>Eraikinaren altuera:</u> 7 m.</p> <p>g) <u>Materialak.</u> Eraikina gauzatzean, Lur Hiritarrezinari buruzko Araudi Nagusiaren 49. eta 50. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.</p> <p>h) <u>Arazketa.</u> Hondakin eta gorozki urak arazteko instalazioa jarri beharko da derrigorrez. Hala azalduko da landetxea burutzeko aurkeztu behar den egitasmoan. Era berean, Arau hauek prestatu aurretik jada bertan zeuden landetxeetan ere halakoak ezartzea derrigorrezkoa gertatuko da.</p> <p>i) <u>Instalazioak eta eraikuntza osagarriak.</u> Osagarri gisa landetxeetan biltegiak, siloak eta abar, eraiki daitezke. Horiek ere eraikinaren proiektuan azaldu behar dira eta, materialei dagokienez, agintarauen 49. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.</p>	<p><u>baitan. Nolanahi ere, eraikuntza beregan jasoko duen lursailak 5.000 m<sup>2</sup> ko gutxieneko azalera izan beharko du.</u></p> <p>b) <u>Fisikoki eta espazialki jarraitua den lursail bakar baten gehienezko okupazioa honakoa izango da:</u></p> <p style="text-align: center;">* 10.000 m<sup>2</sup>-tik beherako azalera duen lursaila: . lursailaren azaleraren %15</p> <p style="text-align: center;">* 10.001 m<sup>2</sup> eta 60.000 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duen lursaila:</p> <p style="text-align: center;">- Irizpide orokorra: ..... lursailaren azaleraren %10</p> <p style="text-align: center;">- Gehienezko okupazioa: ..... 5.000 m<sup>2</sup></p> <p style="text-align: center;">* 60.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duen lursaila:</p> <p style="text-align: center;">- Irizpide orokorra: ..... lursailaren azaleraren %7</p> <p style="text-align: center;">- Gehienezko okupazioa: ..... 8.000 m<sup>2</sup></p> <p>c) <u>Lursailaren ezaugarriak.</u> Eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean egon behar du, gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea.</p> <p>d) <u>Tarteak.</u>                      —Hirigunetik 250 metrora, Jarduera Arriskutsu, Kaltegarri, Osasungaitz eta Nekagarriei buruzko Araudiak tarte handiagoa eskatzen ez badu.                      —Landetxekoa ez den beste edozein etxebizitzatik 100 metrora gutxienez.                      —Lursailaren mugatik 8 metrora.</p> <p>Jada bertan dauden ustiapenen kasuan, berauek handitzeko lanak bertan gauzatu ahal izango dira, nahiz eta aurretik aipatu ditugun tarte horiek betetzen ez badituzte ere. Hala eta guztiz ere, tarte horiek ezin izango dira txikiagoak izan eta eraikin horiek ezin dira antolamendutik kanpo geratu.</p> <p>e) <u>Profila:</u> Beheko solairua + estalpekoa.</p> <p><u>Ustiapenaren produkzio sistemak hala behartzen duela behar bezala justifikatua geratzen bada, soto edo erdi soto solairu bat ere baimendu ahal izango da.</u></p>

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK	HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
	<p>F) Eraikinaren altuera:</p> <p><u>Eraikuntza berriaren gehienezko altuera 6 metrokoa izango da hegalkin horizontaletan eta 9 metrokoa goihabeetan, biak ere inguruko lurra eta eraikuntzaren artean tarte gehien daoen tokian neurtuak. Udalak behar den bezala justifikatu ostean (aldapa handiko lurrak) neurri horiek handi ditzake.</u></p> <p>g) Materialak. Eraikina gauzatzean, Lur Hiritarrezinari buruzko Araudi Nagusiaren 49. eta 50. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.</p> <p>h) Arazketa. Hondakin eta gorozki urak arazteko instalazioa jarri beharko da derrigorrez. Hala azalduko da landetxea burutzeko aurkeztu behar den egitasmoan. Era berean, Arau hauek prestatu aurretik jada bertan zeuden landetxeetan ere halakoak ezartzea derrigorrezkoa gertatuko da.</p> <p>i) Instalazioak eta eraikuntza osagarriak. Osagarri gisa landetxeetan biltegiak, siloak eta abar, eraiki daitezke. Horiek ere eraikinaren proiektuan azaldu behar dira eta, materialei dagokienez, agintarauen 49. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.</p>
<p><b>3.3.4. PAISAJEA ETA NEKAZARITZA BABESTEKO LUR HIRITARREZINEAN APLIKATZEKO ARAUDIA</b></p>	
<p><b>80.Artikulua.</b></p>	
<p>Erabilera eta eraikuntzarako baldintzak jada Lurzoruaren Kalifikazio Orokorri buruzko II. Ataleko 11.2. artikuluan xedatutakoak izango dira. Orendaingo Udalak Egitasmo Berezia prestatuko du Nekazaritza eta Paisaje babesteko lurretan egin beharreko landaketei buruz. Horrek, indarrean dauden legeekin bat etorritik, gaur egun landaketek sortutako arazoei aurre egingo die.</p>	<p>Erabilera eta eraikuntzarako baldintzak jada Lurzoruaren Kalifikazio Orokorri buruzko II. Ataleko 11.2. artikuluan xedatutakoak izango dira. Orendaingo Udalak Egitasmo Berezia prestatuko du Nekazaritza eta Paisaje babesteko lurretan egin beharreko landaketei buruz. Horrek, indarrean dauden legeekin bat etorritik, gaur egun landaketek sortutako arazoei aurre egingo die.</p> <p><u>D.20 Paisajea eta Nekazaritza Babesteko guneetako egungo nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetako eraikuntza berriek, 11.2 artikulua arabera baimentzen direnek, D.10 Orogen Landa Guneetako eraikinei ezartzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.</u></p>



1. irudia: Orendaingo Lurralde antolamenduaren egitura organikoa eta zonaketa orokorra. Iturria: II.2 Planoa. Orendaingo Arau subsidiarioen berrikuspena testu bateratua, 2003ko urtarrila.



## 3.2. Aintzak hartutako hautabideak

### 3.2.1. “zero” hautabidea

“Zero” hautabideak Orendaingo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiariak ez aldatzea dakar, eta ondorioz, indarrean dagoen plangintzaren hirigintza-araudia finkatzea. Hautabide honek finkatuko lituzkeen egungo hirigintza-zehaztapenak ez dira egungo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenen egoerara egokitzen. Horrela, gaur egun lurzoru urbanizaezinaren inguruko araudiak ezartzen dituen mugak motz geratzen dira ustiapen errentagarri eta lehiakorrek garatu ahal izateko.

### 3.2.2. 1. Hautabidea

Arau Subsidiarioen aldaketaren helburua indarrean dagoen plangintza nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenen egungo beharretara egokitzea denez, aldaketa-hautabide bakarra aurkezten da, non AA.SS. hirigintza-araudia egokituko den beti ere garapen iraunkorreko irizpideak kontuan hartuz eta udalerriko ingurumen-balio garrantzitsuenak babestuz.

Horrela, araudia aldataketak “D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneetan” kokatutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenen handitzea baimenduko du (11. artikulua). Baserri berrien eraikuntzaren inguruan (69. artikulua), laborantza ustiapen berria gauzatzeko lursailaren unitatea minimoa murrizten du; Arau subsidiarioek agintzen duten 5 ha-etik, indarrean dagoen legediak lurra lantzeko ezartzen duen unitate minimora (1 ha). Honek eragin dezakeen gehiegizko ustiapen berrien eraikuntza mugatzeko, baserria duen lursailaren gutxieneko azalera 5.000 m<sup>2</sup>-koa izango da, hau da, AA.SSek agintzen dutena baina 2.000 m<sup>2</sup> handiagoa.

Hirigintza-araudiko 71. artikuluari dagokionez, landetxe eta nekazaritza ustiapenak eraikitzeko lursailaren azalera minimoa indarrean dagoen legerian xedatutakoari lotzen zaio (1 Ha), finka ezberdinetan zatitua egon daitekeena. Hala ere, eraikina jasoko duen lursailak, berak, 5.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du, guxienez. Okupazioaren mugak, eraikina jasotzen duen lursail fisikoki eta espazialki jarraituaren azaleraren arabera egiten da. Alde batetik, 10.000 m<sup>2</sup> baino gutxiago duten partzela jarraituak gehienez %15 erabili ahal izango dute ustiapenak eraikitzeko, hori dela eta, zeinbat kasutan, AA.SSen araudiak baimentzen duena (1.500 m<sup>2</sup> kooperatibak/elkarteak eta 1.000 m<sup>2</sup> banakakoak) baino okupazio txikiagoa ezartzen da. Bestalde, Araudiaren aldaketarekin okupazioa handitu egiten da 10.000 m<sup>2</sup> baina gehiagoko azalera duten lursail jarraituentzat, gehieneko okupazioa 8.000 m<sup>2</sup> izanik. Horrez gain, ustiapenen profila eta altuerak egokitzen dira.

Arau Subsidiarioen ordenantzetan proposatzen diren aldaketak 3.1 atalean deskribatzen dira.

### 3.2.3. Hautabideen ingurumen balorazioa

“Zero” hautabideak Orendaingo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak ez aldatzea dakar, eta ondorioz, indarrean dagoen plangintzaren hirigintza-araudia finkatzea. Araudi honek ordea, mugak ezartzen ditu lurzoru urbanizaezineko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak egungo beharretara egokitu ahal izateko.

Arau Subsidiarioen aldaketarako garatutako hautabideak indarrean dagoen plangintzaren ordenantzako artikuluko batzuk egokitzea suposatzen du, ustiapenen egungo premiei erantzuteko gai izango den araudi bat sortuz.

AA.SSen aldaketatik erator daitezkeen jarduerak, bazte ere, baserri berrien eraikuntzarako finen gutxienerako tamaina 1 ha-ra murrizteak, ustiapenei lotutako eraikinen okupazioa handitzeak eta “D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneetan” egun bertan kokatuta dauden ustiapenen handitzea baimentzeak, lurzoru urbanizaezinaren okupazio handiagoa eragin dezakete, indarrean dagoen plangintzan aurreikusita dagoenarekin alderatuz.

Nahiz eta, AA.SSen Aldaketak proposatzen dituen jarduketek ingurumen balio (ur, landaredi, paisaia, etab.) eta ingurumen-arriskuen (zarata) gainean eragin potentzialak eduki ditzaketen, eraikin berrien kokapenaren araberakoa izango da hau. Hala ere, kontuan izan behar da AA.SSen ordenantzak, indarrean dagoen legeriak eta dokumentu honetan proposatutako ingurumena zaintzeko programek eragin horiek saihestu edota murriztu nahi dituztela.



#### **4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAK IZANGO DUEN GARAPENA**

Behin Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala, lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko baldintzak aldatzen dituen, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ondoren, aldaketa honetatik eratorri daitezkeen baserri, landetxe eta abeltzaintzako ustiapenei berrien garapenek edo hauen handitzeak dagozkien Eraikuntza Proiektuak gauzatu beharko dituzte, eta lurzoru urbanizaezinean dauden heinean, Azaroaren 24ko 82/1998 FORU DEKRETUAK, Lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituenak dioen bezala, Foru Aldundiko nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuaren aldeko txostena beharko dute.

## 5. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA

### 5.1. Jardun-esparrua eta kokapena


Azterketa-eremu nagusitzat hartu da Orendaingo udal-barrutiaren azalera osoa, proposatutako aldaketek udalerrriaren lurzoru urbanizaezin guztiari eragiten diotelarik.

Tolosaldea eskualdeko erdialdean kokatuta dago Orendain udalerrria. Tolosa (Tolosaldea) Eremu Funtzionalean dago beste 27 udalerrirekin eta Enirio-Aralarko Mankomunitatearekin batera.

Orendaingo udalerrria 390 metroko altueran dago eta Amezketako bailara menderatzen du, Oria ibairen bailarara ere azaltzen da. Udalerrriaren azalera 6,35 km<sup>2</sup>-koa da (635,90 ha).

Herria lau bailaratan banatuta dago: Kaskogain, Astizalde, Baldanalde eta Egileor. Herriko mendi tontor nagusiaren izena Urkolamendi da. Ekialdean Amezketako erreka mugatzen du Orendaingo herria eta mendebaldean berriz, Ibiur erreka mugatzen zuen, gaur egun, Ibiurko urtegia denak. Mugakide ditu, iparraldean Alegia eta Ikaztegieta, hegoaldean Abaltzisketa eta Gaintza, ekialdean Amezketako erreka eta mendebaldean Baliarrain eta Legorreta.

Orendain Donostiatik 38 km-ra dago, Bilbotik 107 km-ra, Gasteiztik 91 km eta Iruñetik 86 kilometrora.



2. irudia: Orendaingo udalerrriaren kokapena.

## 5.2. Klima

Orendaingo udalerrriak klima ozeanikoa du, estazio lehorrik gabea, klima atlantikoa ere deitzen zaiona, eta urte osoan zehar prezipitazio ugari izaten ditu. Urteko batez-besteko prezipitazioak 1.400 mm-koak dira; udazkena-negua da sasoirik euritsuena. Temperaturak ez du oszilazio handirik eta urteko batez-bestekoa 13°C ingurukoa da.

Udalerriaren hegoaldean, Aralar mendilerroaren kokatzen da, eta, honek pantaila klimatiko moduan jokatzeko du, prezipitazioak eta hodeiak areagotuz.

## 5.3. Airearen kalitatea

Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak EAeko lurraldea 8 unitatetan banatzen du. Kutsatzaile gehienak (SO<sub>2</sub>, NO<sub>2</sub>, PM<sub>10</sub>, PM<sub>2,5</sub>, CO eta O<sub>3</sub>) lurraldearen eremu guztietan neurtzen dira eta bentzenoaren kasuan, neurketa-estazioak gutxiago dira, ebaluazioa orokorra egiten baita EAE osorako.

Ikerketa eremua 'Goierri' (ES1606) unitatearen barnean sartzen da, 917,9 km<sup>2</sup>-ko eremua eta 143.388 biztanle dituena. Ozonorako berariazko zonifikazioari dagokionez, Ibar Kantauriarrek izeneko eremuan dago, 3.721,44 km<sup>2</sup>-ko eremua eta 878.218 biztanle dituena. Hurbilen dagoen kontrol-estazioa Tolosan kokatutakoa da.

Sare horretako datuen arabera (2017.urtea), Tolosako neurketa-estazioan, NO<sub>2</sub> eta PM<sub>10</sub> kutsatzaileek araudian ezarritako muga-balioak ez dituzte gainditzen, beraz airearen kalitatearen helburuak bete dira.

Beasainen kokatzen da SO<sub>2</sub>, PM<sub>2,5</sub> eta CO kutsatzaileak neurtzen dituen sareko estazio hurbilena. Neurketa-estazio honetan, aipaturiko kutsatzaileek ezarritako mugen azpitik jarraitzen dute. Zumarragakoa da geltokirik hurbilena O<sub>3</sub>ren kasuan, eta, bertan, kutsatzailearentzat ez da inoiz 2017an herritarren informaziorako atalasea gainditzen, eta balio objektiboa betetzen da.

## 5.4. Orografia<sup>1,2</sup>

Morfologiaren ikuspegitik, erliebea menditsua da, ibai-egituraketak moldatu duena, malkartsua, gehienetan basogintzara zuzendutakoa; ibaiartetan eta orografia lagungarri den tokietan baserrietako jardueri lotutako larreak eta laborantzak tartekatzen dira.


Udalerriko kota altuena Urkolamendin aurkituko dugu, 435 m-tan, hirigunetik ekialdera kokatua, eta kota baxuena Amezketa ibaiaren ertzean, ekialdeako muturrean, Amezketako udalerriarekin mugan, itsas mailatik gaineko 120 m-tan.

Orendaingo hirigunea iparraldetik hegoaldera udalerria zeharkatzen duen muinoaren gainean kokatzen da; eremu honetan, %0 eta %30 bitarteko maldak dira nagusi. Udalerriaren gehiengo malkartsua eta %40 baino handiagoko aldapak ditu.

<sup>1</sup> Geoeuskadi. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura.

<sup>2</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiko LIDAR datuak.





3. irudia: Orendaingo orografia: malda tartekak.

### 5.5. Geologia eta geomorfologia

Orendaingo udalerrian, unitate geomorfologikoei buruz esan daiteke gainazaleko joan-etorriak, metatze-hegalak eta higadura aktiboko zonak nabarmentzen direla. Amezketa eta Ibiur ibaiei lotutako alubioi-sistema ere agertzen da.

Unitate litologikoei dagokienez, Orendaingo ia udalerrri osoa bat dator Marga gris eskistotsuak kareharri hareatsuzko tarteketarekin, eta hauek pitzaduragatik iragazkortasun txikia azaltzen dute. Udalerrriaren Iparralde eta ekialdeko azalera txikiko bi zonatan, Marga eta kareharri hareatsuak tartekatuta agertzen dira, eta unitate honek pitzaduragatik iragazkortasun ertaina du.

Udalerrian ez dago eremu, ibilbide edo interes geologikoko gunerik. Interes Geologikoko Lekurik (LIG) ere ez dago.


### 5.6. Edafologia eta gaitasun agrologikoa

Orendaingo udalerrian, lubisol ortikoko lurzoruak agertzen dira, erabilera-ahaldmen desberdinak dituztenak, zenbait faktore mugatzaileraren arabera; horien artean, orografia eta malda-tartekak nabarmentzen dira.

Lur ugarienak, erabilgarritasun oso urriko, urriko eta ertaineko lubisol ortikoak dira, malda ertain edo nabarmenak dituzten lurretan kokatuak.



Hirigunea kokatzen den muinoan, udalerraren hegoaldean, eta Amezketeta ibaiaren inguruan, malda leun edo lauak dituzten eremuak daude, eta horiek erabilgarritasun altuko lubisol ortikoko lurzorua dituzte. Amezketeta eta Ibiur ibaiaren alubioi-lautadan, erabilgarritasun oso altuko lubisol ortikokoak dira nagusi.



4. irudia: Orendaingo udalerrian agertzen diren lurzoru motak.

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak udalerraren azalera handiena VII mota moduan sailkatzen du, hau da, baso lanerako baino erabilezin (maldak > %50, higadura, lurzorua) daitezkeen lurri dagokie.


Aurreko horiek baina malda txikiagoa duten eremu batzuk VI motan sailkatu dira, eta hauek lantzeko zailak diren lurrak dira (maldak > %30, higadura, lurzorua), iraunkortasunez larretarako edo basoetarako erabiltzen direnak soilik. Gaur egun, eremu ia guztian larreak aurkitzen dira.

Orendaingo hirigunea VIII motako lurzoruan kokatzen da, hau da, lur hauek nekazaritzarako balio ez dutenak dira, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak.

Malda txikiko hegaletan eta Amezketeta eta Ibiur ibaiaren ibarbideetan, hainbat eremu IV motan sailkatu dira. Hauek, %20 baina baxuagoko maldak dituzte eta lantzeko lursailen muga daude.

Amezketeta ibaiaren ibarrean, III motako lurrak daude, hau da, alubioi-estuak eta malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak sailkatzen dira mota honetan.





5. irudia: Orendaingo udalerrian lurzoruaaren ahalmen agrologikoa.

## 5.7. Hidrologia

### 5.7.1. Sare hidrografikoa<sup>3</sup>

Udalerriko sare hidrografiko osoa Oriako Unitate Hidrologikoan (913 km<sup>2</sup>) dago kokatua, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan, Amezketan eta Oriako arroetan banatuta.

Uraren Esparru Zuzentaraua ezartzeko txostenen arabera, unitate hidrologiko hau EAE eta Nafarroa artean gertatzen denez, Erkidego Arteko Arroen Mugapean (Kantauri Ekialdearen Mugape Hidrografikoan) daude eta Estatua da erakunde eskuduna; Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez kudeatzen da.


Plan Hidrologikoaren arabera, Orendain udalerrian ondorengo lurrazaleko ur-masen barnean aurkitzen da: Oria ibaia (ES028MAR002661), Amezketan II ibaia (ES021MAR002661), Ibiur urtegiako drainatzen eremua (ES020MAR002641) eta Ibiur urtegia (ES020MAR002641).

Amezketan ibaia, udalerriko ekialdeko mugan, udalerriko ekialdeko hegaletatik igarotzen diren hainbat erreka elikatzen dute, besteak beste, Intzalegi, Otsarte, Ubiaga, Año eta Intsusarregi errekek. Bestalde, Ibiurko urtegiari jarraitzen dute, mendebaldeko ibarbideetan dauden ur-ibilguak, besteak beste, Txara eta

<sup>3</sup> Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.

Gorostegi errekek. Udalerriko iparraldeko errekek zuzenean Oria ibaian isurtzen dute, hauen artean aipatzekoa da Larrunbe erreka.

EAEko Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LPSaren arabera, Amezketan ibaiak I. maila du udalerraren ekialdeko mugan (10 eta 50 km<sup>2</sup> arteko arro isuria). Intzalegi erreka elkartzen zaionetik Amezketan II. mailako (50 eta 100 km<sup>2</sup>) izatera pasatzen da. Intzalegi erreken beheko zatiak 0. maila du, hau da, 1 eta 10 km<sup>2</sup> arteko arroa. Ibiurko kasuan urtegitira doan errekek 0. maila du (1 eta 10 km<sup>2</sup> arteko arroa). Behin urtegitik behera Oriara isuri bitarteko ibilbide laburrean I. maila hartzen du. Gainerako errekek 1 km<sup>2</sup> baino gutxiagoko arroak dituzte (00. maila). Oria ibaiak udalerraren ipar-mendebaldeko mugan IV. maila du (200 eta 400 km<sup>2</sup> arteko arro isuria).



6. irudia: Orendaingo sare hidrografikoa

### 5.7.2. Lurrazaleko uren kalitatea

Ur-Agentziak duen EAEko ibaien egoeraren jarraipenerako sareak<sup>4,5</sup> Orendaingo udalerritik gertu Oria V (ORI258 y ORI260) eta Amezketan II (OAM117) masetan laginketa-estazioak ditu.

<sup>4</sup> Informe Red de seguimiento del estado químico de los ríos de la CAPV. Campaña 2017. UTE Laboratorios Tecnológicos de Levante - Ekolur Asesoría Ambiental.

<sup>5</sup> Informe Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV. Campaña 2017. UTE ANBIOTEK-CIMERA.



Eskuragarri dauden azken txostenek ematen dituzten datuen arabera (2017 kanpaina), Oria V eta Amezketak II ur masek neurritzko egoera ekologiko erakusten dute, ez-betetze arinak dituztelako.

Egoera fisiko-kimikoari dagokionez, Oria V eta Amezketak II ur masek neurritzko baldintzak edo okerragoak dituzte.

Ibiur masa eta urtegiak baldintza ekologiko eta fisiko-kimiko onak izan ditu 2013-2017 denboraldian eta ingurumen helburuak betetzen ditu.

2. taula: Lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa. Iturria: Egoera biologikaren jarraipenerako sarearen 2017ko dokumentua.

Lurrazaleko ur-masa	Egoera ekologikoa						Joera	Helburuak betetzea
	2013	2014	2015	2016	2017	2013-17		
Oria V	neurritzkoa	ona	urria	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	Ezegonkorra	Ez betetze arina
Amezketak II	neurritzkoa	ona	ona	neurritzkoa	neurritzkoa	neurritzkoa	Ezegonkorra	Ez betetze arina
Ibiur	≥ona	≥ona	≥ona	≥ona	≥ona	ona	Egonkorra	Betetzen ditu

### 5.7.3. Gune Babestuen Erregistroa (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa)<sup>6</sup>

EAEko Plan Hidrologikoan dagoen Gune Babestuen Erregistroak aurki daitezke ur ingurunearen barnean babestutako guneak, europar araudia eta arloko beste araudi batzuei jarraiki.

Ibiurko urtegia, Orendaingo udalerraren mendebaldeko zonaldean dagoena, gune babestu hauen artean aurkitzen da "Ibiur (Kodea 20905-01), Hiri-hornidurarako ur-harguneak" moduan erregistratua. Halaber, Orendaingo ipar-mendebaldeko mugan ES2120005 Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

### 5.7.4. Lurpeko urak<sup>7</sup>

Uraren Esparru Zuzentaruaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenak adierazten duenez, aztergai dugun esparrua lurpeko Arama (ES013S000011) ur-masaren gainean kokatzen da.

Masa hau Oizeko Sinklinorioa/Goi-Kretazeoa/Sumendi Konplexua domeinu hidrogeologikoaren barnean dago eta 2. mailako ur-masa moduan definitzen da, hau da, iragazkortasun eta interes hidrogeologiko txikikoa, nahiz eta aprobeixamenduak izan dituen.

### 5.7.5. Iturburu eta lur gaineko hartundeak

Geoeskadiko informazioaren arabera, ondorengo iturri eta ur-hartundeak kartografiatzen dira Orendaingo udalerrian:

3. taula: Iturburu eta lur gaineko hartundeak. Iturria: Geoeskadi.

ID	KODEA	IZENA	ERABILERA	MOTA
12779	20005573	Ijito	Abereen-hornidura	iturburua

<sup>6</sup> Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba la revisión de los Planes Hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Occidental, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura y Júcar, y de la parte española de las demarcaciones hidrográficas del Cantábrico Oriental, Miño-Sil, Duero, Tajo, Guadiana y Ebro.

<sup>7</sup> Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.

ID	KODEA	IZENA	ERABILERA	MOTA
12782	20005576	Lugara	hiri-hornidura	iturburua
12799	20005595	Argai Barrena	Abereen-hornidura	iturburua
12815	20005612	Galardi	Abereen-hornidura	iturburua
12705	20005496	Ainokoa	Abereen-hornidura	iturburua
12710	20005501	Nahera	Nekazaritza-abeltzaintza	iturburua
12711	20005502	Ituralde	Abereen-hornidura	iturburua
12729	20005520	Mizpiango Iturrie	Abereen-hornidura	iturburua
12738	20005529	Marizti	Abereen-hornidura	iturburua
12762	20005555	Iturburua	Abereen-hornidura	iturburua
15804	40001279	Ubako-Uturria erreka	-	lurrazaleko hartunea
16553	40003189	Ibiur erreka	-	lurrazaleko hartunea
16743	40003889	Ibiur erreka	-	lurrazaleko hartunea

#### 5.8. Landaretza eta lurzorua erabilerak<sup>8</sup>

EAEko Landaredi Sailaren Maparen arabera Orendaingo udalerriko landaredi potentziala, hau da, gizakiaren eraginik gabe ustez garatuko litzatekeena, honako hau izango litzateke:

- Haltzadi kantauriarra: erreka ertza eta ibar nagusietan.
- Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa: lurraldearen zati handiena hartuz.

Egun aurkitzen dugun landarediak, ordea, gizakien jardueren ondorioz eraldaketa garrantzitsuak jasan ditu, basoek udalerraren azalaren % 62,68a estaltzen dutelarik. Aipatzekoa da, gaurko baso hauen erdia baino gehiago landaketarako formakuntzei dagokio eta autoktonotzak jo dezakegun basoari dagokionez, landaretza potentzialarekin bat datozen harizti, hostozabalen baso misto, eta haltzadi kantauriarrez osatuta dago, azken honek jasan duelarik narriadura handiena, ur-ibilgu nagusien eta hauen ibarren artifizializazioaren ondorioz.


Hiritartutako eremuak hirigunea gehi sakabanatuta dauden borda eta baserriek osatzen dute; hauen inguruan pilatzen dira lorategi, baratza eta fruitondo gehienak. Larre eta belazeek udalerraren herena hartzen dute. Iratzedi, sasidi eta sastrakadiak berriz, azalera txikiagoan agertzen dira. Ur-ibilguak eta urtegiak %3,59a hartzen dute, azalera honen gehiena Ibiur urtegiari dagokiolarik.

4. taula: Landaredi eta lurzorua erabileraren unitateak.

Landaredi unitateak	Azalera (ha)	Udalerraren zenbatekoa
Bertako espezieetako baso eta heskaiak	158,09	%24,86
Larre eta belazeak	188,86	%29,70
Koniferoen edo hostozabalen landaketak	240,51	%37,82
Hiritartutako eremuak	12,64	%1,99
Iratzedi, sasidi eta sastrakadiak	12,61	%1,98
Lorategi, baratze eta frutarbolak	0,37	%0,06

<sup>8</sup> Natura ondarea eta biodibertsitatea. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

Landaredi unitateak	Azalera (ha)	Udalerrriaren zenbatekoa
Ur-ibilguak eta urtegia	22,82	%3,59
<b>GUZTIRA</b>	<b>635,90</b>	<b>%100</b>



7. irudia: Landaredi eta lurzoruen erabilera nagusiak Orendaingo udalerrian.

### Kontserbazio interesa duen landaredia<sup>9</sup>

Eusko Jaurlaritzako EAEko habitat mapak jasotzen duenez Orendainen Europar Batasunaren intereseko habitatak (interes komunitarioko habitatak) estalitako 185 ha inguru dago, udalerriko azalera osoaren ia herena. Hauetako 5 habitat mota ezberdin identifikatu dira, horietatik 2 lehentasunekotzat jotzen direlarik (kodean izartxo dutenak):


5. taula: Interes komunitarioko habitaten izenak eta azalerak.

Kodea	Habitataren izena	Azalera (ha)	Udalerrriaren zenbatekoa
4030	Txilardi lehor europarrak	1,73	%0,27
6210*	Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak ( <i>Festuco-Brometalia</i> ) *orkidea garrantzitsuekin	5,60	%0,88

<sup>9</sup> Europako Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbaziorako 92/43/CEE Artetzarua (Habitat Artetzarua).




Kodea	Habitataren izena	Azalera (ha)	Udalerrriaren zenbatekoa
6510	Altuera txikiko sega-larre txiroak ( <i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i> )	172,38	%27,11
91E0*	Haltzadien eta lizardi baso alubialak ( <i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i> )	4,82	%0,76
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, <i>Ilex</i> eta batzuetan <i>Taxus</i> espezieetako oihanpea dutenak	0,31	%0,05
<b>GUZTIRA</b>		<b>184,84</b>	<b>29,07%</b>



8. irudia: Interes komunitarioko habitatak Orendaingo udalerrian.

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira beste formazio batzuen alde (larreak, baso-berritzeak, e.a.). EAEko natura babesten duen 2/2013 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela eta, harizti azidofiloa edo harizti-baso mistoa kontserbatzeko interesa duten landaredi eta habitaten artean hartu da. Guztira 143,30 ha inguruko azalera hartzen dute intereseko formazio hauek udalerrian.



9. irudia: Harizti azidofiloa edo harizti-baso mistoa Orendaingo udalerrian.

Orendaingo udalerrian, Geoeskadiko informazioaren arabera, ez da agertzen EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorrian bilduta dagoen espezie mehatxatutarik.

### 5.9. Intereseko fauna

#### Katalogatutako espezieak

Orendaingo naturaltasunak eta habitat aniztasunak fauna aberastasunean islada dauka eta udalerrian aurki daitezkeen animalien zerrenda oso luzea da. Horregatik babes berezia daukaten espezieetara mugatuko gara ondoren.

Eusko Jaurlaritzako datu baseak, Orendaingo udalerriak hartzen dituen 10x10 km-ko UTM laukietan (30T WN76 eta 30T WN77) EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren 41 espezieen aipamenak jasotzen dituzte:

6. taula: EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren espeziak 30T WN76 eta 30T WN77 UTM laukietan.

Espeziea	Izen arrunta	Arrisku maila <sup>1</sup>	Habitat nagusia
ANFIBIOAK			
<i>Ichtyosaura alpestris</i>	uhandre alpetarra	K	hezeguneak
NARRASTIAK			
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	basoa, landazabala



Ezpezia	Izen arrunta	Arrisku maila <sup>1</sup>	Habitat nagusia
HEGAZTIAK			
<i>Accipiter gentilis</i>	aztorea	B	basoa
<i>Accipiter nisus</i>	gabiraia	IB	basoa
<i>Alcedo atthis</i>	martin arrantzalea	IB	ur-ibilguak
<i>Aquila chrysaetos</i>	arrano beltza	K	harkaiztiak
<i>Bubo bubo</i>	hontza handia	B	harkaiztiak
<i>Caprimulgus europaeus</i>	zata arrunta	IB	landazabala, sastrakadia
<i>Charadrius dubius</i>	txirritxo txikia	K	ur-ibilguak
<i>Cinclus cinclus</i>	ur-zozoa	IB	ur-ibilguak
<i>Circus cyaneus</i>	mirotz zuria	IB	sastrakadia
<i>Corvus corax</i>	erroia	IB	orotarikoa
<i>Dendrocopos minor</i>	okil txikia	IB	ibar-basoa, landazabala
<i>Dryocopus martius</i>	okil beltza	B	basoa
<i>Falco subbuteo</i>	zuhaitz-belatza	B	basoa
<i>Falco peregrinus</i>	belatz handia	B	harkaiztiak
<i>Gypaetus barbatus</i>	ugatza	GA	harkaiztiak
<i>Hieraetus pennatus</i>	arrano txikia	B	basoa
<i>Jynx torquilla</i>	lepitzulia	IB	landazabala
<i>Milvus milvus</i>	miru gorria	K	landazabala
<i>Neophron percnopterus</i>	sai zuria	K	harkaiztiak
<i>Pernis apivorus</i>	zapelaitz liztorjalea	B	basoa
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	buztangorri argia	B	basoa
<i>Phylloscopus trochilus</i>	txio horia	B	landazabala
<i>Prunella collaris</i>	mendi-tuntuna	IB	harkaiztiak
<i>Pyrrhocorax graculus</i>	belatxinga mokohoria	IB	harkaiztiak
<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	belatxinga mokogorria	IB	harkaiztiak
<i>Regulus regulus</i>	mendi-erregetxo	IB	basoak
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde enara	K	ur-ibilguak
<i>Saxicola rubetra</i>	pitxartxar nabarra	IB	landazabala
UGAZTUNAK			
<i>Eptesicus serotinus</i>	baratz saguzarra	IB	harkaiztiak, eraikuntzak
<i>Felis silvestris</i>	basakatua	IB	basoa
<i>Galemys pyrenaicus</i>	muturluze piriniarra	GA	ur-ibilguak
<i>Mustela lutreola</i>	bisoi europarra	GA	ur-ibilguak
<i>Mustela putorius</i>	ipurtatsa	IB	ur-ibilguak
<i>Myotis daubentonii</i>	Daubenton saguzarra	IB	basoa
<i>Myotis emarginatus</i>	Geoffroy saguzarra	K	landazabala
<i>Myotis nattereri</i>	Natterer saguzarra	B	leizeak
<i>Pipistrellus nathusii</i>	Nathusiusen pipistrela	IB	basoak
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	ferra-saguzar txikia	K	basoa, kobazuloak
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	ferra-saguzar handia	K	kobazuloak, baselizak

<sup>1</sup>GA: Galtzeko arriskuan, K:Kaltebera, B: Bakana, IB: Interes Berezikoa.

Aurreko taulan agertzen denez, aipatutakoen artean 3 espezie aurkitzen dira 'galtzeko arriskuan' kategorian sailkatuak, 9 espezie 'kaltebera' kategorian, 8 espezie 'bakana' kategorian eta 19 'interes bereziko'-tzat jotzen dira.

Orendaingo udalerria hartzen duen laukian Aralarko Kontserbazio Bereziko Gunea ere aurkitzen da, hori dela eta, harkaiztiei eta kobazuloei loturiko hainbat espezie ageri dira. Taulan zerrendatzen diren espezien artean, habitat nagusiak basoa, landazabala eta ur-ibilguak dituztenak agertu litezke, batik bat, Orendaingo udalerrian.

#### Puntu Sentikorrak, Interes Bereziko Guneak eta Lehentasunezko Banaketa Eremuak


EAEko III Ingurumen Esparru Programak (2011-2014) ezartzen zuen “*mehatxupeko flora eta fauna espezieen lehentasunezko banaketa guneak, garrantzi bereziko eremuak eta gune ahulak zaintzea*” beharrezkoa dela, “*kudeaketa plana duten ala ez kontuan izan gabe*”. Animaliei dagokienez, zera esan dezakegu Orendaingo kasuan:

Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) globalki mehatxatua dagoen haragijale erdi-urtarra da eta bere habitat nagusia, hau da, ur-ibilguak, Lehentasunezko Banaketa-Eremu bezala izendatuta daude, hauen artean udalerraren mugetatik igarotzen diren Ibiur eta Amezketa ibaia. Oria ibaia, udalerriko ipar-mendebaldeko mugan Bisoi europarraren Interes Bereziko Gune izendatzen da.

Bestalde, Orendaingo udalerrian ez dago beste fauna espeziarentzako Interes Bereziko Gunerik.

#### 5.10. Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea<sup>10</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proposamenak (IKT, 2005) ‘Ernio - Gatzume – Aralar - Izarraitz, R18: Aiako Harria-Aralar’ lotura-korridorea eta honen indargetze-eremua irudikatzen ditu Orendaingo azalera ia dena hartuz (hirigunea kanpora utziz).



10. irudia: Orendaingo kokapena EAEko Korridore Ekologikoen Sarean.

<sup>10</sup> IKT SA, 2005. EAEko Korridore Ekologikoen Sarea. Eusko Jaurlaritza.



### 5.11. Interes Naturalistikoko eremuak

Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 28. artikulua definitzen duenaren arabera, naturgune babestu izango dira lurralde nazionalako gunek —ur kontinentalak barne— eta itsas ingurunea —ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentalak barne—, betiere honako baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaratu badira:

- a) Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.
- b) Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune izatea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak eremu babestuko sistema bat ezartzen du, hiru mailatan sailkatuta:

- Naturagune babestuak
- Natura 2000 Sareko eremu babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

**Naturagune babestuak** honako mailatan sailkatzen dira:

- a) Natur Parkeak
- b) Natura-erreserbak
- c) Itsas inguru babestuak
- d) Natura monumentuak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bateginan onartzen duenak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, naturagune babestuek ondorengo maila horietako bat izango dute:

- a) Natura-parkea
- b) Biotopo babestua
- c) Zuhaitz apartekoa
- d) Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantziko lekuak -BGL-, kontserbazio bereziko eremuak -KBE- eta hegaztientzako babes bereziko eremuak -HBBE-), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere.

Horrela, natura-eremu babestuko sareari, oinarriko legediaren bitartez, biotipo babestuak eta zuhaitz apartekoak gehitzen zaizkio.

**Natura 2000 Sareko eremu babestuek** barne hartzen dituzte Batasunaren Garrantziko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bihurtu arte, eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Eremu horien kudeaketak eskakizun ekologikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hartzen ditu aintzat, baita erregioko eta tokiko berezitasunak ere.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. artikulua araber, **nazioarteko tresnek babestutako eremutzat** hartuko dira Espainia partaide izango den nazioarteko Hitzarmen eta Akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatuko diren natura-eremu guztiak, eta zehazki, ondorengoak:

- a) Nazioartean garrantzia duten hezeguneei buruzko hitzarmenaren arabera, nazioartean garrantzitsuak diren hezegunak, bereziki hegazti urtarren habitat badira.
- b) Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioko Munduko Ondarearen zerrendako naturaguneak.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmeneko (OSPAR) eremu babestuak.
- d) Mediterraneoarentzat Garrantzizko Babes Bereziko Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoko itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenekoak.
- e) Geoparkeak, UNESCOk aitortuak.
- f) Biosferako erreserbak, UNESCOk aitortuak.
- g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Eremu horiei babes-irudia duten ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie, helburu izanik gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik gabe dauden, eta egoera ekologiko ona duten ibai-tarteak zaintzea. Hala aitortzen dira uraren legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua betez. Legeak aurreikusten du Estatuaren eskumenekoak diren Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatzea ibai-erreserba natural izendatu beharreko eremu horiek.

Udalerrian ez da aurkitzen interes naturalistikoko eremurik (EAEko Naturgune Garrantzitsuen Katalogo Irekia, LAAeko Natura Intereseko Eremuen Zerrenda Irekia eta EAEko hezeguneeen inbentarioa). Gainera, udalerriko eremuan ez dago erabilera publikoko mendirik.

Orendaingo udalerrriaren ipar-mendebaldeko muga ES2120005 Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

Orendaingo udalerrriaren inguruan hainbat intereseko eremu aurkitzen dira. Horien artean aipatzekoak dira, Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120011) udalerritik 1,8 km hegoaldera kokatua, eta LAAeko Natura Intereseko Eremuen Zerrenda Irekiko Araxes ibaiaren harana-Jazkugane eta Basabe (DOT035) eremua, udalerritik 1,3 km ekialdera dagoena.


## 5.12. Paisaia<sup>11</sup>

Orendain landa-izaerako herria da eta bere paisaia, mendi, baso eta larreen mosaikoa da nagusi. Udalerria hegoaldetik iparraldera Aralarko mendilerrotik datorren magal batek zeharkatzen du, eta honen bi aldetara, ekialde eta mendebaldera, zeharkako ibar malkartsuak sortzen dira.

<sup>11</sup> IKT SL & Paisaia, 2005. Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV. Anteproyecto. Gobierno Vasco.

Euskadiko datu espazialen egiturak, bi paisaia unitate bereizten ditu Orendaingo udalerrian, eremu geomorfologikoaren arabera: flubiala, gehienbat altitude txikieneko lurrak barneratzen dituen eta karstikoa, hegoaldeko mendi-aldeari dagokiona.

‘EAEko Paisaiaren Kartografia’ (1990) eta bere balioespenean (1993) EAEko ikus-arroak zedarritu ziren. Ikus-arroak zonalde erlatiboki homogeenak dira ikusmen irizpideei dagokienez eta elkarren artean interbisibilitate erlazioa mantentzen dutenak. Orendaingo lurrak 3 ikusmen-arrotan banatzen dira ‘Alegia’, ‘Amezketeta’ eta ‘Baliarrain’ izenekoetan: azken bi hauek balio oso altukotzat hartzen direnez EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta daude. Bestalde, Alegiako ikusmen-arroak balio oso baxua du.



11. irudia: Ikuspen arroak eta Orendaingo paisaia unitateak.

Katalogo honen aurreproiektuaren lanketan kontuan hartu ziren ikusmen-eraginen artean, Amezketeta zein Baliarraingo ikusmen-arroetan, harkaiztiak baino ez zituzten identifikatu ikusmen-inpaktua eragiten duen elementu bezala, inpaktu positiboa kasu honetan. Horretaz gain, bertako basoen estaldura eta larreez inguratutako tipologia tradizionalako baserriak ere eragin positiboko elementu bezala hartu daitezke; bestalde, landaketa basoen ustiapenak, tipologia ez tradizionalako etxebizitza eta bestelako eraikuntzak, papelera batez ere, eta tentsio altuko argindar-lineak inpaktu negatiboa eragiten dute.

Alegiko ikusmen-arroan, errepideak, argindar lineak eta trenbideak eragiten dute ikusmen-inpaktu negatiboa batez ere. Inpaktu positiboa eragiten duten elementuen artean ibaiak bakarrik hartzen dira kontuan.

7. taula: Orendaingo Ikupen-arroen ezaugarriak. EAEko Paisaia Katalogoaren aurreproiektua.

Ikuspen-arroa	Paisaiaren balioa	PBNK*	Ikusmen-inpaktu negatiboak	Ikusmen-inpaktu positiboak
Alegia	1 – oso baxua	ez	Errepideak, argindar lineak, trenbidea, etab.	Ibaiak
Amezketeta	5 – oso altua	bai	-	harkaiztiak
Baliarrain	5 – oso altua	bai	-	harkaiztiak

\*PBNK: EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan.

### 5.13. Kultur ondarea<sup>12</sup>

Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eskuragarri duen informazioaren arabera, Orendaingo udalerrian badira kultura ondarearen intereseko elementu ezberdinak:

8. taula: Orendaingo udalerrian aurkitzen diren kultur ondare ezberdinak. Eusko Jaurlaritza.

Elementu mota	Izena	Babes maila
Eliza	Andre Mariaren Jasokundea parroikia	Ustezko arkeologia-eremua
Baseliza	Sebastian deunaren baseliza	Ustezko arkeologia-eremua
Baserria	Jauregi	Ustezko arkeologia-eremua
Baserria	Larretaonuzkoa	Ustezko arkeologia-eremua
Baserria	Abaliaundi	Ustezko arkeologia-eremua
Baserria	Gorostegi	Ustezko arkeologia-eremua
Baserria	Lizarribar	Ustezko arkeologia-eremua

Adierazitakoaz gain, Orendaingo Arau Subsidiarioetan “Hirigintzako ondarearen katalogoa” ageri da, eta bertan Orendaingo udalerrian natura, arkitektura eta historia dela eta, arreta berezia merezi duten ondasun eta osagaiak mugatzen dira.

#### 2.2. Arreta bereziko eraikinak eta osagaiak.

Arreta bereziko eraikinei dagokienez, Euskal Herriko Ondare historiko-arkitektonikoari buruzko Inbentarioak aintzat hartuz, hots, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eginiko inbentarioak, Orendaingo udalerrian honako eraikin hauek ditugu:

- Udaletxea.
- Barberoetxe etxea.
- Apezetxea.
- Ama Birjiñaren Jasokundearen eliza.
- Sebastian deunaren baseliza.
- Gabilloko Gurutzea.
- Urkidi Baserria.
- Konde Baserria.

<sup>12</sup> Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Zutzarri Baserria.
- Jauregi Baserria.
- Errota Etxeberri Baserria.
- Uegun Errota.
- Baliarrain Errota.
- Lizarribar Baserria.

### *2.3. Interes berezia duten eraikinak eta elementuak babesteko erregimena*

*Orendaingo udalerrian egun dauden interes bereziko eraikin eta elementuak finkatzeari dagokionez, katalogoa egiterakoan oinarritzat hartu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Euskal Herriko ondare historikoa-artistikoaren Inbentarioa, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Orendaingo udalerrirako egindakoa:*

*Bi babes erregimen hauek ezartzen dira:*

- Babes hertsiko osagaiak.*

*Atal honetan sartzen diren osagaietan gauza daitezkeen jarduerak Berriztapen lanekin bat etor daitezke, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 214/1996 Dekretuaren arabera, Berriztapen zientifiko eta Berriztapen kontserbatzaileekin alegia.*

- Oinarrizko babesa duten osagaiak.*

*Atal honetan biltzen diren osagaietan jardueraren bat gauzatuz gero, horien bolumena, kanpoko itxura, banaketa tipologikoa eta oinarrizko egitura bere horretan mantentzea proposatzen da. Halako jarduerak aipatutako ekainaren 30eko 214/1996 Dekretuan Erreformatzat jotzen diren lanekin bat etorriko dira. Salbuespen gisa, berriztatze eta sendotze lanak burutu ahal izango dira, baldin eta ez badira oinarrizko ezaugarri tipologikoak eta formalak aldatzen, osagaiaren berezko balioa mantenduko dela bermatuz.*

- Babes hertsia duten osagai arkitektonikoak:*

*Uegun Errota.*  
*Jasokundearen Eliza.*  
*Udaletxea.*

- Oinarrizko babesa duten osagai arkitektonikoak:*

*Sebastian deunaren basiliza.*  
*Lizarribar Baserria.*  
*Baliarrain Errota.*  
*Apezetxa.*

*Horrela, 2.2. atalean aipatzen diren eraikin eta osagaiak dagokionez, honako atal honetan sartzen ez direnei behintzat, oinarrizko babesa aplikatuko zaie, bestelako baldintzen eraginez babes handiago behar ez baldin badute, halako kasuetan azken hau aplikatuko baitzaie.*

*2.4.1997ko urriaren 31ko Erabakiak hartzen dituen alor eta osagaiak, Eusko Jaurlaritzaren Kulturak Sailak kaleratutako Erabakia alegia.*

—«A» motako ustezko elementu arkeologikoak:

*Jauregi Baserria.*

*Gorostegi Baserria.*

*Larreta Aruzkoa/Onuzkoa Baserria.*

*Abali Aundi Baserria.*

*Sebastian deunaren basiliza.*

*Lizarribar Baserria.*

—«B» motako ustezko elementu arkeologikoak:

*Ama Birjiñaren Jasokundearen eliza.*

—«D» motako ustezko elementu arkeologikoak:

*Molino Baliarrain Errota (1997an bota zuten Ibiurreko urtegia egiteko.)*

#### 5.14. Sozioekonomia

Euskal Estatistika Erakundearen informazioaren arabera ([www.eustat.eus](http://www.eustat.eus) estekan eskuragarri), Orendaingo udalerrriak 2018an 202 biztanle zituen; horrek esan nahi du dentsitatea 31,4 biztanle/km<sup>2</sup>-ko dela. 2015an BPG biztanleko 16.809,30 € izan zen eta 2016an langabezia-tasa % 5,70ekoa zen. Udalerrriaren lurzoru urbanizaezina % 96,37koa zen 2014an.

#### 5.15. Ingurumen-prozesu eta arriskuak

##### 5.15.1. Higadura arriskua duten eremuak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen higaduraren mapak (1: 25.000 eskala) higadura hidrikoa aztertzen du. Horrek esan nahi du agente higatzailea euri-ura dela, eta pixkanaka-pixkanaka lurzoruko partikulak ezabatzen joaten dela, eta horren gaineko eraginak argi eta garbi antzematen direla epe laburrean. Higadura hidriko laminarra edo ubideek eragindako higadura mailak aurreikusteko erabilitako ereduak Lur Galeren Ekuazio Unibertsala da, bai 1978ko jatorrizko bertsioan, USLE ereduan, bai 1997ko berrikusitako bertsioan, RUSLE ereduan.

Berrikusitako RUSLE ereduaren arabera, udalerrriaren ia azalera guztia higadura oso baxua eta lurzoruaren galera onargarria duten zonetan dago. Udalerriko ibaien ertzat, hainbat ibar eta hiritartutako eremu batzuk higadura-prozesurik ez duten zonetan kokatzen dira. Higadura maila baxuak eta lurzoruaren galera onargarriak izan ditzakeen zonak ere aurki daitezke udalerrian sakabanatuta. Higadura arrisku larriak dituen eremurik ez da aurkitzen Orendaingo udalerrian.

Nekazaritza eta Basozaintzarako LPS-k 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' kategorian udalerriko ipar-ekialdean 8,5 ha sailkatzen ditu. Egun Ibiur urtegia dagoen tokian ere 1,1 ha sailkatzen ditu.

### 5.15.2. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk<sup>13</sup>

IHOBEren 'Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuen inbentarioa' informazio iturri gisa hartuz, udalerrian ez da aurkitzen kutsatuta egon daitezkeen partzelarik identifikatuta.

### 5.15.3. Uholde-arriskua<sup>14</sup>

Kantauri ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren eremuan uholdeei buruzko azterketa ugari egin dira. Egun 500 biztanle baino gehiagoko EAeko hirigune ia guztietako uholde-arriskuen mapak daude, etengabeko berrikusketari lotuta dauden arren. Bertan hiru arrisku kategoria ezberdin ezarri dira, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldia duten uholde-orbanen arabera, eta baita, EAeko Ibai eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearena Arloko Planak ezarritako beste kategoria bat ere, 'lehentasunezko fluxu eremua' izena duena eta 10 urteko birgertatze-aldiko orbanarekin bat datorrena gutxi gora-behera.

LAP honek, uholdeen prebentzioari begira lurzoruaren erabileren eta jarduera hidrauliko eta hirigintzako antolamendua xedatzen du uholde-ibarraren eremu ezberdinetan: Irizpide orokor bezala, lehentasunezko fluxu-eremuetan hirigintzako aprobetxamendu berririk ez da onartuko. 100 urteko birgertatze-aldirako urperagarriak diren zabaldietan, landa-eremuetan eta gaur egun urbanizatuta ez dauden zonetan berezko uholdegarritasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira jorratuko; dagoeneko urbanizatutako edota hirigintza aldetik neurri batean garatutako eremuetan, berriz, 'ahalegina egingo da lehendik dauden eraikinak eta hirigintzako erabilerak mantentzeko, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren'. Zona hauetan saihestu egingo da, halaber, funtsezko azpiegitura publikoak ezartzea, eta hirigintzako garapen berriak baimendu ahal izango dira ahal delarik, 500 urteko errepika-denborako uholdearenetik gora.

Orendainen uholde orban hauek Amezketa ibaiari loturikoak dira batez ere; udalerraren ekialdeko muga 500 (2,68 ha), 100 (2,14 ha) eta 10 (0,93 ha) urteko birgaitze-aldiak agertzen dira.


Horrez gain, Oria ibaiari loturikoak, ipar-mendebaldeko muga, 500, 100 eta 10 urteko birgertatze-aldiak 0,24ha, 0,16 ha eta 0,11 ha-ko azalera hartzen dute hurrenez hurren. Gainera, Lehentasunezko fluxu-gunearen barnean kokatzen dira udalerriko 0,07 ha.

---

<sup>13</sup> 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruaren inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.

<sup>14</sup> Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.





12. irudia: Uholde arriskua Orendaingo udalerrian.



13. irudia: Amezketa eta Ori ibaiko uholde arriskuko eremuak.

#### 5.15.4. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna<sup>15</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasunaren maparen arabera (1: 25.000), Orendaingo lurraldean akuiferoak kutsatzeko arrisku oso txikia da eta beraz ezaugarri onuragarriak ditu akuiferoen urrakortasunari dagokionez.

#### 5.15.5. Klima aldaketa<sup>16</sup>

2019ko urtarrilean “EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa” txostena argitaratu da. EAEko udalerrien kalteberatasuna eta arriskua

<sup>15</sup> Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus>

<sup>16</sup> EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa. Eusko Jaurlaritza - Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzua, Ihobe, Udalsarea 21eko Idazkaritza, Teknikoa Tecnalía Research & Innovation eta Enea Estrategias para la Sostenibilidad SL elkarlanean. 2019ko urtarrila.



ebalutzeko lehentasunezko inpaktu-kateen kopuru mugatu bat identifikatzen eta hautatazen da bertan. Horrela, klima-mehatxu baten (egungoa zein etorkizuneko) eta sektore, esparru edo hartzaile baten arteko kausa-efektu harremanak jaso litezke.

Kontuan izanik EAEko klima-testuinguruari buruzko informazioa eta sektore nagusietan sor daitezkeen inpaktuak EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa ondorengo kate hauek kontuan hartuta egin da: “Bero-boladek gizakion osasunean duten inpaktua”, “Ibaiek-uholdeek hiri-ingurunean duten inpaktua”, “Itsasoaren mailak gora egiteagatik sortutako uholdeek hiri-ingurunean dituzten ondorioak”, eta “Lehorte handieneko aldi gehiago izateak jarduera ekonomikoetan duen inpaktua, batik bat nekazaritza-ingurunean”.

Hautatutako inpaktu kate bakoitzarentzan kalteberatasun- eta arrisku-osagaiak hobekien azal ditzaketen adierazleak hautetsi dira; mehatxua, esposizioa, sentikortasuna eta erantzuteko gaitasuna/egokitzeko gaitasuna dira hain zuzen; eta indize konposatu espezifiko batzuk lortu dira EAEko udarri bakoitzerako eta aztertutako inpaktu-kate eta agertoki bakoitzerako.

Orendaingo udalerriri dagokionean, ondorengo hiru inpaktu-kate hauek jasateko arriskua du: bero-boladen inpaktua gizakion osasunean, ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean eta lehorte handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan (batez ere nekazaritzan).

Azterketa honetan bi agertoki ezberdin (RCP 4.5 eta RCP 8.5) definitzen dira berotegi-efektuko gasen emisioaren arabera, agertoki okerrena RCP 8.5 izanik.

Bero-boladen inpaktuari dagokionez, esan daiteke 2011-2040 aldian, hala RCP 4.5 nola RCP 8.5. agertokietan, % 9 arrisku-igoera gertatuko litzatekeela udalerrian, 1971-2000 erreferentziazko aldiarekin alderatuta. 2071-2100 aldian, berriz, igoera hori are handiagoa izango litzateke: %23 RCP 4.5 agertokian, eta %30 RCP 8.5 agertokian. Gainerako EAEko udalerriekiko duen posizioa kontuan izanik, deziletan 9-10 arteko balioak hartzen ditu, hau da, udalerria inpaktu honen aurrean arrisku haundiena duten udalerrien artean sailkatzen da. Nabarmenezkoa da, udalerriak kalterako sentikortasun edo suszeptibilitate adierazlearen indize oso altua duela inpaktu honekiko.

Ibai-uholdeen inpaktuaz aipatzekoa da, 2011-2040 aldian, RCP 4.5 agertokian, erreferentziazko 1971-2000 aldiarekin alderatuta arrisku-aldakuntza % -0,7 izango dela, RCP 8.5 agertokian berriz, % 1,4-teko aldakuntza. Aldaketa hori nabarmenagoa da 2071-2100 aldian, % 2,4 RCP 8.5 agertokian, eta % 3,7 RCP 8.5 agertokian. Gainerako udalerriek alderatuz, posizio erlatiboan arrisku maila txikia dutenen artean aurkitzen da. Aipatu behar da Orendaingo kasuan arrisku honekiko esposizioa baxua dela.

Lehorte handitzearen inpaktuari buruz, esan daiteke goranzko joera ikusi dela etorkizuneko agertoki guztietan. Hala, 2011-2040 aldian, %2,1 eta %0,3-ko arrisku-igoera espero da RCP 4.5 eta RCP 8.5 agertokietan, hurrenez hurren. Bestalde, 2071-2100 aldian, igoera hori are nabarmenagoa izango litzateke % 4 -koa RCP 4.5 agertokian, eta % 9 RCP 8.5 agertokian. EAEko beste udalerriekiko posizio erlatiboari begiratuta, Orendaingo udalerriak arrisku-ertaina duela esan genezake.


9. taula: Orendaingo udalerriri eragiten dien Klima aldaketaren ondorio diren arriskuak.

Inpaktu mota	Indizeak	Arriskua				
		1971-2000 erreferentziako aldia	2011-2040 aldia		2071-2100 aldia	
			RCP 4.5	RCP 8.5	RCP 4.5	RCP 8.5
Bero-boladen inpaktua	Balore normalizatuak (1-2)	1,2894	1,3835	1,3809	1,5221	1,5854
	Beste udalerriekiko posizio erlatiboa (deziletan)	10	9	10	10	9
Ibai-uholeen inpaktua	Balore normalizatuak (1-2)	1,2331	1,2264	1,2472	1,2569	1,2699
	Beste udalerriekiko posizio erlatiboa (deziletan 1-10)	2	2	2	2	2
Lehortea handitzearen inpaktua	Balore normalizatuak (1-2)	1,3995	1,4209	1,4022	1,4391	1,4896
	Beste udalerriekiko posizio erlatiboa (deziletan)	4	4	4	4	4

#### 5.15.6. Zarata

Orendaingo udalerrian orokorrean eta zehazki biziguneetan hots-kutsadura eragin dezaketen iturri nagusia bertako hiritarren desplazamenduengatik sortu daitekeen ibilgailuen zirkulazioa da.

Orendaingo udalak ez du udalerriko Zarata-Maparik. Hori dela eta, Gipuzkoako Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak eginiko Errepide Sareko Zarataren Mapa Estrategikoak kontsultatu dira (2017ko ekaina). Udalerraren ingurutik pasatzen den errepide nagusia N-1 errepidea da, eta irudian ikusi daitekeen moduan, Orendaingo afekzio eremutik kanpo geratzen da.



14. irudia: N-1 errepidea Orendaingo udalerrriaren inguruan sortzen duen afekzio eremua eta zarata-maila (24h). Iturria: Bide Azpiegituretako Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Beraz, egun ez dago Orendaingo udalerrian zarata-mailari buruzko daturik.

## 6. AURREIKUS DAITEZKEEN INGURUMEN ONDORIOEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Atal honetan, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak sortu ditzakeen ingurumen inpaktuak identifikatu dira.

AA.SSen aldaketak inpakturen bat sorraz dezaketen ondorengo jarduerak ahalbidetzen ditu:

- “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan” egun dauden nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak handitzea ahalbidetzen du, salbuespen gisa, betiere, D.10 Ororen Landa gunek kalifikaziodun lurretan handitze hori burutzea teknikoki eta ekonomikoki bideraezina dela justifikatzen bada.
- Baserri berrien eraikuntzari dagokionez, laborantza ustiapen berria gauzatzeko lursaiak gutxienez indarrean dagoen legediak lurra lantzeko unitate minimo bezela finkatutakoa (1 ha) izango da (5 ha AA.SSetan). Eraikina duen lursailaren gutxieneko azalera 5.000 m<sup>2</sup>-koa izango da (3.000m<sup>2</sup> AA.SSetan).
- Landetxe eta nekazaritza ustiapen trinkoen eraikina duen lursail jarraien gutxieneko azalera 5.000 m<sup>2</sup>-koa izango da. Eraikinaren gehienezko okupazioa aldatu egiten da; 10.000 m<sup>2</sup> baino gutxiago duten partzela jarraietan gehienez %15 erabili ahal izango dute ustiapenak eraikitzeke; 10.001 m<sup>2</sup> eta 60.000 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duten lursail jarraiean %10 erabiliko da eraikitzeke, beti ere gehienez 5.000 m<sup>2</sup>; 60.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duten partzela jarraietan %7 okupatu ahal izango du eraikinak, maximoa 8.000 m<sup>2</sup> izanik. Horrez gain, ustiapenen profila aldatzen da, justifikatu daitekeen kasuetan, soto edo erdi soto solairu bat baimendu daiteke, eta eraikinaren altuera 9 metrokoa izango da gehienez (7m AA.SSetan).

Laburbilduz, proposatutako aldaketa hauek, lurzoru ez urbanizagarrian baserri, landetxe eta nekazaritza ustiapen gehiago eraikitzeke ahalmena ematen dute. Horrez gain, indarrean dagoen araudiak baimentzen ez duen eremuan, “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan”, aurkitzen diren ustiapenak handitzeko aukera zabaltzen du.

Aurreko atalean deskribatutako ingurumen-balio eta -arriskuak kontuan hartuta, AA.SS. aldaketa garatzeak izan ditzakeen eragin potentzialak aztertuko dira ondoren:

- Lurzoruaren okupazioa
- Lur gaineko uren inpaktua
- Landarediaren gaineko eragina
- Faunaren gaineko eragina
- Korridore ekologikoaren gaineko eragina
- Interes naturalistikoko eremuen gaineko eragina
- Paisaiaren gaineko eragina
- Kultura ondareen gaineko eragina
- Higadura-arriskua

- Uholde arriskua
- Zarata eta kutsadura atmosferikoa (eraikuntza-lanak)
- Zarata (ustiapen garaia)
- Sortutako hondakinak (eraikuntza-lanak eta ustiapen garaia)
- Baliabideen kontsumoa handitzea (eraikuntza-lanak eta ustiapen garaia)
- Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina

Udalerriak ez du kutsatuta egon daitekeen lurzorurik, eta ezaugarri onuragarriak ditu akuiferoen urrakortasunari dagokionez, beraz, ez dira kontuan hartu ingurumen-inpaktuen balorazioan.

Gainera, ez da atzeman bateraezintasunik hierarkian gorago dagoen plangintzarekin.

### 6.1. Lurzoruaren okupazioa

Arau subsidiarioen aldaketak, nahiz eta, baserria hartuko duen lursailaren azalera minimoa 5.000 m<sup>2</sup>-tara handitu duen, baserri berria gauzatzeko ustiapenak eduki beharreko lursailaren gutxieneko unitatea murrizten du 5 ha-tik 1 ha-ra, eta ondorioz, nekazaritza eta abeltzaintzari loturiko ustiapenei loturiko baserri gehiago eraikitzeo aukera ematen du. Hori dela eta, lurzoru ez urbanizagarriaren okupazio eta artifizializazio handiagoa sor daiteke, indarrean dagoen plangintzarekin alderatuta.

Landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoen kasuan, ustiapen batek lursail jarrai batean izan dezakeen gehienezko okupazioa 8.000 m<sup>2</sup> -ra zabaltzen da, betiere ustiapena sustengatzen duen lursailaren tamainaren arabera. Hori horrela, lorzuru urbanizaezinen okupazio are handiagoa izatea suposatuko du.

Gainera, AA.SSen aldaketak “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan” aurkitzen diren ustiapenak handitzeko aukera ematen du salbuespen modura. Egungo plangintzarekin eraiki ezin den eremuetan eraiki ahal izango da, eta beraz, nekazaritzako erabilerak eta paisaia babesteko eremu honetan ere lurzoruaren okupazioa areagotuko da.

Egungo planeamenduaren aldaketa garatzeak eragin zuzena, atzeraezina eta berreskurazina izango du lurzoruaren okupazioan, baina dokumentu hau idazteko unean ez da horren benetako magnitudea ezagutzen. Hala eta guztiz ere, “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan” eraikinak handitzeko eta lurzoru urbanizaezinean baserri eta landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoak eraikitzeo AA.SSen aldaketak ezarritako baldintzak kontuan hartuta, betiere, *Uztailaren 4ko 19/1995 Nekazaritza Ustiapenen Modernizazioari buruzko Legea*, *abenduaren 23ko 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa Legea* eta *Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak* ezartzen dituen mugak betez, esan daiteke inpaktua bateragarria izango dela.

AA.SSen aldaketatik eratorritako jarduerak ez dute eraginik hiritar-lurzoruan eta lorzuru urbanizagarrian.

### 6.2. Lur gaineko uren inpaktua

Hasiera batean, AA.SSen aldaketaren garapenetik sor daitezkeen jarduerak ez dute udalerriko ibai-ibilguetan ezta ere Ibiurko urtegian zuzeneko eraginik izango; izan ere, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeo Lurraldearen Arloko Planak eraikinentzat gutxieneko erretiro batzuk ezartzen ditu ibai-mailaren arabera, eta gainera, Uren Legeak eta hau garatzen duen araudiak (*Uztailaren 20ko 1/2001*

*Legegintzako Errege Dekretuaren 6. artikulua, Uren Legearen testu bategina onartzen duena, eta apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren 7 eta 9 artikulua, Jabari Publiko Hidraulikoko araudia onartzen duena eta Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen VII., IV., V. eta VII. Atalak garatzen dituen).*

eta Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen I., IV., V., VI. eta VII. kapituluetak, Uren Legearen testu bategina onartzen duena, eta Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen VII., IV., V. eta VII. artikulua onartzen dituen), Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-zonarekiko errespetua bermatzen dute (ubidetik 5 m), eta beharrezkoa da baimena eskatzea ubideen jagoletza-zonan jarduteko (100 m).

Horrez gain, Arau Subsidiariaren Testu Bateratuak, 86. artikuluan *Ubide publikoak eta babesguneak* izenekoan, erabilera-araubideak jasotzen ditu.

Uren kalitatea murrizteari dagokionez, kontuan hartu behar da lorzoru ez urbanizagarrian ubideetatik hurbil baserri, landetxe eta abeltzaintza ustiapenen eraikuntza-lanak diarduen bitartean, solido esekiak ugaritu daitezkeela gainazaleko uretan. Hala ere, eragina aldi baterakoa, itzulgarria eta berreskuragarria denez, eta proposatutako neurri zuzentzaileak eta aldaketatik erator daitezkeen jarduketa-motak kontuan hartuta, inpaktua ez da esanguratsua izango.

Gainera, Arau subsidiarioen araudiarekin (50. artikulua eta 71. Artikulua) bat etorritik, baserri, landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoen eraikinekin hondakin eta gorozki urak arazteko instalazioa eta horiek bideratzeko sistema jarri beharko dituzte derrigorrez eta instalazio horiek garbitu eta mantendu beharko dituzte.

Ustiapen-fasean, azaleko uren kalitatea kaltetzeko arriskua aldi baterakoa, itzulgarria, berreskuragarria izango da, eta, beti ere, aipatutako araudia betetzen bada bateragarria.

### 6.3. Landarediaren gaineko eragina

Lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako eraikinak egiteak edo handitzeak landaredia kentzea edota zuhaitz-mozketa ekar dezake.

Landarediaren mozketak eragin negatibo, atzeraezina eta berreskuragarria izango du. Aipatzekoa da, plangintzaren aldaketan “D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneeetan” salbuespen gisa egungo ustiapenak handitzea proposatzen bada ere, ezin direla ustiapen berriak ezarri. Gainera, prebentzio-neurri gisa, hostozabalen masa naturaletan eta lehentasunezko habitat komunitarioetan eragina ekiditea proposatzen da (ikus 10 atala). Beraz, inpaktua neurritzakoa eta ez oso esanguratsua izango dela aurreikusten da.

### 6.4. Faunaren gaineko eragina

Lurzoru urbanizaezinean, eraikuntzak eta instalazioak eraikitzearen fasean, landaredi eta zuhaitzak mozteak faunarentzako habitataren kalitatea gutxitu dezake eta mugitzeko ahalmen urria duten espezieen aleei zuzenean eragin diezaieke.

Udalerriaren mugetatik igarotzen diren lbiur eta Amezketa ibaiak, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Lehentasunezko Banaketa-Eremu bezala izendatuta daude. Gainera, Oria ibaia, udalerriaren ipar-mendebaldeko mugan, bisoi europarraren Interes Berezikoko Gune izendatzen da.

Horrez gain, udalerrriaren naturaltasunak eta habitat aniztasunak hainbat fauna espeziertzako baldintza egokiak sortzen ditu. Orendaingo udalerrian agertu litezke, batik bat, basoa, landazabala eta ur-ibilguak habitat nagusi dituzten espezieak.

Aipatu den bezala, hiri antolamenduaren aldaketatik sortu litezkeen jarduerak ez dute zuzenean eragingo udalerrian antzemandako intereseko landarediari ezta ibai-ibilguei, ondorioz, ezta bertan dagoen faunari. Gainera, kontuan hartuta AA.SSen aldaketaren ondorioz sortu daitezkeen jarduerak intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko neurri prebentibo eta zuzentzaileak hartu direla eta faunaren mugimenduak ez oztopatzeko hesi iragazkorak proposatzen direla (ikus 10. atala), esan daiteke eragina ez dela esanguratsua izango.

#### 6.5. Korridore ekologikoaren gaineko eragina

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proposamenak (IKT, 2005) 'Ernio - Gatzume – Aralar - Izarraitz, R18: Aiako Harria-Aralar' lotura-korridorea eta honen indargetze-eremua irudikatzen ditu Orendaingo azalera ia dena hartuz (hirigunea kanpora utziz).

Bai lotura-korridorea bai moteltze-eremuak nekazaritza eta abeltzaintzako paisaiengatik eta, neurri txikiagoan, landaredi naturaleko teselekin osatuta daude. Zona hauetako kudeaketaren helburuak inpaktuen prebentzioa, kontserbazioa eta, bere kasuan, landaredi naturaleko elementuen zaharberritzea, eta nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- eta zinegetika- ustiapenak iraunkorrak izatea dira.

Arau subsidiarioen aldaketatik eratorritako garapenek izango duten inpaktua ez da oso esanguratsua izango, batez ere, kontuan izanik, intereseko landaredia eta faunaren mugimenduak ez kaltetzeko neurriak proposatzen direla (ikus 10. atala).

#### 6.6. Interes naturalistikoko eremuen gaineko eragina

Orendaingo udalerrriaren ipar-mendebaldeko muga ES2120005 Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremua aurkitzen da.

AA.SSen aldaketaren garapenetik sor daitezkeen jarduerak ez dute udalerriko lurrazaleko uretan zuzeneko eraginik izango, eta beraz, hasiera batean ez da inpakturik sortuko ES2120005 Oria Garaia KBEan.

Dena dela, arau subsidiarioen aldaketatik eratorri daitezkeen garapenek Uren Legea eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak eraikinentzat ezartzen dituen gutxienerako erretiroak beteko dituzte. Honek eta lur gaineko uren babeserako proposatu diren beste neurriek Oria Garaiko KBEaren gaineko inpaktua saihestea ekarriko dute (ikus 10. atala).

Gainera kontuan hartu behar da, udalerrriaren ipar-mendebaldeko eremu honetan, orografiaren ezaugarriak eta ibiur urtegiaren kokalekua direla eta, ez dirudi bideragarria AA.SSen aldaketatik sortutako garapenak bertan finkatzea.

Beraz, esan daiteke Arau Subsidiarioen aldaketa puntual honek ez duela eragin esanguratsurik izango ES2120005 Oria Garaia KBEan.

#### 6.7. Paisaiaren gaineko eragina

Baserri, landetxe eta abeltzaintzako ustiatuei lotutako eraikinak egiten direnean, inpaktu negatiboa sortuko da landaretza moztearen, eta, hala badagokio, lur-mugimenduen ondorioz. Halaber, ustiapen-fasean, paisaian inpaktua sortuko dute landa-ingurunean eraikin berrien ezarpenak.

Arau subsidiarioen 47., 48., 49. eta 50. artikuluetan lurzoru urbanizaezineko eraikin berriek bete beharreko eraikuntza eta urbanizazio baldintzak ezartzen dira, horien artean landa-paisaian eraikina lekukotzeko paisaia zaintzeko irizpideak eta neurriak jasotzen dira, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko xedez.

Paisaiaren gaineko inpaktua negatiboa, jarraitua eta berreskuragarria izango da; aldi baterako eta itzulgarria eraikuntza-lanen fasean eta iraukor eta itzulezina ustiapen-fasean. AA.SSen aldaketatik eratorri litezkeen jarduerak kontuan hartuta eta AA.SSek ezarritako eraikuntza baldintzak kontuan hartuz, inpaktua neurritzakoa eta ez oso esanguratsua izango da.

#### 6.8. Kultura ondarearen gaineko eragina

Arau subsidiarioen aldaketak sortu ditzakeen garapenak eta AA.SSen Textu Bateratuan txertatzen den "Hirigintzako ondarearen katalogoa" kontuan izanik, ez da aurreikusten Orendaingo udalerrian babestutako eta identifikatutako ondare arkeologiko eta arkitektonikoko elementuen gaineko inolako eraginik.

#### 6.9. Higadura-arriskua

RUSLE modeloaren arabera, udalerriak ez du higadura-arriskurik. Nekazaritza eta Basozaintzako LAP-ak ordea, 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' kategorian udalerriko ipar-ekialdean 8,5 ha sailkatzen ditu. Egun Ibiur urtegia dagoen tokian ere 1,1 ha sailkatzen ditu.

Baserri, landetxe eta abeltzaintza ustiapenak eraikitzerakoan, Eraikuntza Proiektuak higadura-fenomenoak saihesteko beharrezko neurriak proposatuko dituen ikerketa geoteknikoa jasoko du.

Gainera, Arau subsidiarioetan, baserri berrien eraikuntzarako (69.artikulua) udalak eraikuntza neurriak aldatu egin ditzazke aldapa handiko lurren kasuan. Landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoei dagokienez, eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean egon behar du, gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea (71.artikulua), horrela, bide berrien prestaketa saihestu edota prestatuta ez dauden zonetan ibilgailuak pasatzea ekiditen da.

Jardueren ezaugarriak eta prebentzio-neurriak ezartzeko aukera kontuan hartuz, irizten da inpaktua gertatzekotan, negatiboa, ez-jarraia, itzulezina, berreskuragarri eta ez esanguratsua izango dela.

#### 6.10. Uholde arriskua

Orendaingo udalerrian 10, 100 eta 500 urteko birgaitze-aldien uholde-orbanak agertzen dira. Orendainen uholde orban hauek, Amezketa ibaiari loturikoak dira batez ere; udalerraren ekialdeko muga 500 (2,68 ha), 100 (2,14 ha) eta 10 (0,93 ha) urteko birgaitze-aldiak agertzen dira. Horrez gain, Oria ibaiari loturikoak, ipar-mendebaldeko muga, 500, 100 eta 10 urteko birgaitze-aldiak 0,24ha, 0,16 ha eta 0,11 ha-ko



azalera hartzen dute hurrenez hurren. Gainera, Lehentasunezko fluxu-gunearen barnean kokatzen dira udalerriko 0,07 ha.

Arau subsidiarioen aldaketaren ondorioz sortu daitezkeen garapenek birgaitze-aldi desberdineko uholde-orbanen okupazioaren inguruko indarrean dagoen legedia bete beharko dute. Egun, uholde-arriskuaren gaian erreferentziatzko legedia Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa<sup>17</sup> da.

Baldin eta indarrean dagoen araudia betetzen bada, inpaktua ez da adierazgarria izango.

#### 6.11. Zarata eta kutsadura atmosferikoa (obrak)

Eraikuntza lanek irauten duten bitartean, makineriaren joan-etorriek kalitate akustikoa gutxitzea eta esekidura partikulen eta inguru hurbileko partikulen gehikuntza eragin dezakete.

AA.SSen aldaketaren ezaugarriak direla eta, esan daiteke, sortutako eraginak aldi baterakoak, itzulgarriak eta berreskuragarriak direla eta beraz, ez oso esanguratsuak.

#### 6.12. Zarata (ustiapen garaia)

Abeltzaintzako ustiapen berriak (ganaduak) ezartzea eta eguneroko lanetarako ustiapenetan erabilitako traktore eta bestelako ibilgailu motordunek, zarata igorle berri moduan joka dezakete ingurunean inpaktuak eraginez, bereziki, inguruan dauden etxebizitzetan.

Herritarregan zaratak izan dezakeen inpaktua sahiesteko xedearekin eta bizitegi-erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak kontuan hartuta, AA.SSetan landetxe eta nekazaritza ustiapen berriek hirigunearekiko eta beste etxebizitzekiko bete beharreko gutxieneko distantziak ezartzen dira: Hirigunetik 250 metrora, Jarduera Arriskutsu, Kaltegarri, Osasungaitz eta Nekagarriei buruzko Araudiak tarte handiagoa eskatzen ez badu; landetxekoa ez den beste edozein etxebizitzatik 100 metrora gutxienez; eta lursailaren mugatik 8 metrora, hain zuzen ere.

AA.SSetan agertzen diren eta atal honetan aipatu diren neurriak betetzen badira, inpaktua ez da esaguratsua izango.

#### 6.13. Sortutako hondakinak (obrak eta ustiapen garaia)

Lurzoru ez urbanizagarrian, eraikuntza lanek irauten duten bitartean, edozein motatako hondakinak sortzen badira, soberako lurrak eta landare-mozketa jatorri duten hondakinak barne, era egokian eta indarrean dagoen legediaren arabera kudeatuko dira.

<sup>17</sup> Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartua izan da 2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa. Plan hori 2009-2015 Plan Hidrologikoaren berrikuspena da, ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bitartez onartu zena.

Halaber, ustiapen-fasean, lurzoru ez urbanizagarrian baserri, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen gehiago ezartzeko aukerak inpaktu negatiboa sor dezake, hau da, hondakinen sorrera handiagotzea. Hondakin hauek egungo udalerriko hondakinen-bilketako zerbitzuaren bitartez kudeatu beharko dira.

Txosten hau egiterako orduan ez da ezagutzen AA.SSen aldaketatik sortu daitezkeen ustiapen eta baserri berrien kopurua. Hala ere, hasiera batean badirudi egun udalerrian finkatuta dagoen hondakinen bilketa eta kudeaketa sistemarekin onargarria izango litzatekeela.

Hondakin gehiago sortzeak ekar dezakeen inpaktua aldi baterakoa izango da eraikuntza-lanen fasean eta iraunkorra ustiapen-fasean, eta kasu guztietan, itzulgarria eta berreskuragarria.

Baldin eta hondakinak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzen badira, inpaktua bateragarria izango da.

#### **6.14. Baliabideen kontsumoa handitzea (obrak eta ustiapen garaia)**

Lurzoru urbanizaezinean, baserri, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen gehiago ezartzeko aukerak baliabideen kontsumoa (ura, energia, etab.) handituko du.

Txosten hau idazterako orduan AA.SSen aldaketatik sortu daitezkeen ustiapen eta baserri berrien kopurua ezagutzen ez bada ere, printzipioz, eragina bateragarria izango dela dirudi.

#### **6.15. Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina**

Baserri, landetxe eta nekazaritza ustiapen berrin eraikuntzak lurzoru ez urbanizagarriaren okupazioa eta artifizializazioa ekar dezake. Lurzoruaren artifizializazioak hiriko bero-uharte efektua (Aldaketa klimatikoaren efektua) sortzea eragin dezake. Efektu hau jatorri termikoko fenomeno da, hiriguneetan eta bereziki gauean gertatu ohi dena, eraikuntza masiboko esparruetan tenperatuak gora egiten duenean. Gaur egun, Orendaingo udalerria ez dago hiriko bero-uharte efektuaren menpe eta ez da aurreikusten AA.SSen aldaketak egoera hau aldatuko duenik.

Bestalde, landare-estaldura murrizteak zuhaitzak moztuz berotegi-efektuko gasak xurgatzeko ahalmena gutxitzea ekarriko du. AA.SSen aldaketaren ondorioz sortu daitezkeen jardueren tamaina ezautzen ez den arren, esan daiteke, landaredia babesteko proposatu diren neurriak kontuan hartuz, inpaktua ez dela oso esanguratsua izango.

Planeamenduaren aldaketak ez du Orendaingo udalerriak klima-aldaketaren aurrean duen kalteberatasuna eta arriskua handituko (ikusi 5.15.5).

#### **6.16. Jasangarritasun energetikoa**

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren arabera, hiri-antolamenduko plan orokorrek, besteen artean, eta ondorioz hauen aldaketek jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa egin beharko dute.

Aztergai dugun AA.SSen Aldaketa puntual honen kasuan ordea, kontuan hartuz lurzoru urbanizaezinari lotutako aldaketa dela, eta aldaketatik sortu daitezkeen garapenak ezagutzen ez direla, ez da bideragarria

jasangarritasun energetikoari buruzko plan bat egitea. Hala ere, AA.SSen aldaketatik sortu daitezkeen jarduerak jasangarriak izango direla ziurtatzeko, garapenek betetzeko hainbat neurri proposatzen dira agiri honetan (ikus 10.atala), AA.SSetan nahiz AA.SSen aldaketan ordenantzak jartzen dituzten betebeharez gain.

Neurriak AA.SSen aldaketatik sortu daitezkeen eraikin berrien jasangarritasunari bideratuta doaz, hauek baliabideen kontsumoa (ura, argia, etab.) murrizteko, energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko, argi-instalazioen kutsadura saihesteko eta mugikortasun eraginkorra bultzatzeko irizpideak ezartzen dituzte.

## 7. PLAN SEKTORIAL ETA LURRALDE PLAN KONKURRENTEEN GAI NEAN AURREIKUS DAITEZKEEN ONDORIOAK

### 7.1. EAEko Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroak<sup>18</sup>

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), EAEko *“lurraldean jarduten duten eragilean jarduera ekonomikoak eta sozialak bertan kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak formulatzeko eta gauzatzeko erreferentzia-esparrua eraikitzea”* helburuarekin. Kontuan hartzekoa da, 2018ko azaroaren 21ko Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Aginduak, behin-behineko onarpena eman ziela Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde-Antolamenduaren gidalerroak berrikusteko dokumentuari.

Hemendik abiatuta eta ingurune fisikoa oinarri eta euskarriztat hartuta, LAA-ek Lurralde Antolamendurako Eredua osatzen duten proposamen integratuen multzo bat eskaintzen du, eta aipatutako prozesu horiek bideratzeko eta erregulatzeko irizpide eta arauak finkatzen ditu.

Antolamendu Kategoriak ingurune fisikorako Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute eta lurraldea sektore edo arlo homogeneotan zonabanatzen. Arlo hauek harrera-ahalmenaren arabera definitzen dira eta bakoitzari erabilerean arautze espezifikoa aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeako matrizea). Honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Erabilera-bokazio definitu gabea
- Lurrazaleko uren babesa

LAA-ek diote *“garapen-plangintzak (Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak eta abar) LAAetan ezarritako Antolamendu Kategorien izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazio bat ezarriko du Hiritarrezin gisa sailkatutako lurzorura. Aztergai den zonako berezitasunen arabera, azpikategoria gehigarriak ezar daitezke”* Eta ondoren gehitzen dute garapen plangintzak: *“erabilera eta ihardueren arautze espezifikoagoa ezarri ahal izango du Antolamendu Kategoria bakoitzean, beti ere LAA hauetan izaera orokorrez araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza partikularrak kontuan hartuta”*.

Gainera, Antolamendu Kategoriekin batera, ingurumen-baldintzatzaile batzuk ere definitu ziren, jarduera jakin batzuk egitea baldintza dezaketen lurraldeko arrisku edo ezaugarri berezi batzuei buruzkoak:

- Akuiferoen urrakortasuna

---

<sup>18</sup> Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Eremu higakorrak
- Uholde-joerako eremuak
- Natur Espazioak eta Biotopo Babestuak

LAA-ek Udal Antolamenduan zuzenean aplikatuko diren zenbait zehaztapen lotesle ezartzen dituzte:

- Lurrazaleko uren tratamendua: ibilguen babeserako behin-behineko neurri batzuk ezartzen dira.
- Lurzoru hiritarrezinean etxebizitza familiabakar edo familiabikoak eraikitzeke debekua, nekazaritza-ustiategiari loturik daudenean izan ezik.
- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintzaren gehieneko muga zenbatekotzea, behin-behineko izaeraz.
- Udal antolamenduak erauzketa jardueren eraginpean dauden eremuak zedarritzeko beharra.

Gainera, LAA-ek Lurraldearen Zatikako Planak eta Lurraldearen Arloko Planak idazterako orduan erreferentzia izango diren beste zehaztapen batzuk ere ezartzen ditu. Ildo honetan, LAA-en 20. atalean, Jardutze-Eremu edo Eremu Funtzionalak (EF) zedarritzen dira, EAE eta udalerrien arteko eskala moduan. Orendain, Gipuzkoako beste 28 udalerrirekin batera, Tolosa (Tolosaldea) Eremu Funtzionalako zati da.

Aipatu den moduan lurzoru hiritarrezinean nekazaritza-ustiategiari loturiko etxebizitza familiabakar edo familiabikoak eraikitzea baimendu egiten du LAA-ak, Zehazki, AA.SSen Aldaketaren proposamenek bat egiten dute LAA-en berrikustek bultzatzen duen nekazaritza eta abeltzaintza jardueren intentsitate eta kalitatea handitzeko irizpideekin.

## 7.2. Toloserriko (Tolosaldea) Eremu Funtzionalako Lurralde Zatikako Plana<sup>19</sup>



Tolosaldeako LZP-k 2013ko azaroan jaso zuen hasierako onarpena (EHAA, 214. zk.). LZP-k eremu funtzionalerako lurralde eredu bat proposatzen du. Hau garatzeko tresnen estrategiak eta programak (Udal Hirigintza Plangintza eta plan bereziak funtsean) eta Arloko Planak orientatzeko helburuarekin, eragiketa estrategikoak adierazten ditu.

Ingurune fisikorako lurralde ereduaren inguruan, Orendaingo udalerrian kasuan LZP-ko 01.1. planoan “Ingurune fisikoaren antolamendua: Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak” agertzen diren moduan ondorengo zehaztapen hauek egiten ditu:

---

<sup>19</sup> Eletxigerra & Lonbera, 2012. Tolosaldeko Eremu Funtzionalako Lurraldearen Zatikako Plana. II. Liburua: Antolamendu Arauak eta Udal Antolamenduaren gaineko eraginei buruzko agiri osagarria. Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia





15. irudia: LZP-ko 01.1. planoan "Ingurune fisikoaren antolamendua: Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak".

## **Garratzi handieneko eremuak**

### **Babestu beharreko eremuak**

- Nekazaritza- edota ingurumen-intereseko eremuak: Hain zuzen ere, lehen sektoreko produktibitateko potentzialtasun handiko edota ingurumen-balio handiko eremuak dira. Orendain eta Abaltzisketa arteko muinoak eta mazelak kategoria honetan aurkitzen dira.

- Interes hidrologikoko eremuak: Kategoria honetan sailkatu dira, lur gaineko urei dagokienez, urtegiak, ibai-ibilguak eta babes-lerroak, EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritako adarkatzearen arabera; lur azpiko urei dagokienez, akuiferoen urrakortasunaren inguruan arrisku handia edo oso handia duten eremuak.

### **Hobetu edota leheneratu beharreko eremuak**

- Ekosistemak hobetzeko eremuak: Interes naturaleko eremuen kategorian barne hartu ez diren baso naturalak eta horietan sortzen diren zuhaixka formazioak barne hartzen dira kategoria honetan. Baso naturalek eta zuhaixka-formazioek duten kokapen topografikoa eta potentzialtasuna kontuan hartuta, aurreko kategorian sailkatzen dira batzuetan.


- Baso-kontserbazioko eremuak: Kategoria honetan sartu dira malda handiko, sakonera gutxiko edota higadura jasateko arriskua duten lurzoruetan baso-masa handiak jasaten dituztenak.

## **Lurraldearen gainerakoa**

Aipatutako eremuez gain, Orendaingo udalerrian Hiri izaerako lurzorua eta Baliabideen ordenazio eta ustiapeneko eremuak bereizten dira.

LZP-ko 01.2. planoan “Ingurune fisikoaren antolamendua, antolamendu-kategoriak eta hainbat erreferentzia”, 01.1 planoan sailkatutako eremuez gain, Baliabideen ordenazio eta ustiapeneko eremuak bi taldetan definitzen ditu: Nekazaritza intereseko eremuak eta Ohiko nekazaritza eta abeltzaintzarako eremuak. Halaber, korridore ekologikoen sarearen ‘Ernio-Gatzume\_Aralar\_Izarraitz, R18: Aiako Harria-Aralar’ parte bezala irudikatzen du Orendaingo udalerria. Bestalde, Ibiur eta Orio ibaiak Lotura-interes bereziko ibai-tarte moduan definitzen dira (ikusi 15.irudia).





**INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDURAKO  
 HAINBAT ERREFERENTZIA**

**KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA**  
 (Diseñurako egungo proposamen teknikoa)

LURREKO KORRIDOREAK  
 (Supraregionales/Regionales)  
 ARALAR-AIAKO HARRIA  
 ARALAR-ERNIO GATZUME-IZARRAITZ  
 ERNIO GATZUME-PAGOETA



NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO  
 EREMUAK ETA LANDAZABALA

NEKAZARITZA INTERESEKO EREMUAK

OHIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO EREMUAK



LOTURA-INTERES BEREZIKO IBAI-TARTEAK  
 (Herrialdeaz-gaindikoak/Herrialdekoak)

IBIUR  
 BEDAIO  
 LIC RIO ARAXES  
 ZELAI  
 LIC RIO LEITZARAN  
 LIC ALTO ORIA



16. irudia: LZP-ko 01.2. planoan "Ingurune fisikoaren antolamendua, antolamendu-kategoriak eta hainbat erreferentzia".

Arau subsidiarioen aldaketak Tolosako EF Lurraldearen Zatikako Planak ezarritako irizpideak beteko ditu eta beraz, bateragarria izango da.

### 7.3. Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

#### 7.3.1. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala<sup>20</sup>

Ibai eta erreken ertzak antolatzeko LPS isurialde kantaurren dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin-betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua EAEko ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.

LAP honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Osagai hidraulikoaren arabera, Amezketak ibaiak I. maila du udalerraren ekialdeko mugan (10 eta 50 km<sup>2</sup> arteko arro isuria). Intzalegi erreka elkartzen zaionetik Amezketak II. mailako (50 eta 100 km<sup>2</sup>) izatera pasatzen da. Intzalegi erreken beheko zatiak 0. maila du, hau da, 1 eta 10 km<sup>2</sup> arteko arroa. Ibiurko kasuan urtegitira doan erreka 0. maila du (1 eta 10 km<sup>2</sup> arteko arroa). Behin urtegitik behera Oria ibaira isuri bitarteko ibilbide laburrean I. maila hartzen du. Gainerako errekek 1 km<sup>2</sup> baino gutxiagoko arroak dituzte (00. maila). Oria ibaiak udalerraren ipar-mendebaldeko mugan IV. maila du.

Ingurumen-osagaiari dagokionez, Orendainen ondorengo kategoriako ertzak aurki daitezke:

- **‘Ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak’**: Intzalegi erreka eta Ibiurko urtegitik bera dagoen Ibiur erreka tarteko ertzak hartuz. Hauetan araudiak honako hau dio: *“Ertz horietan gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean. Era berean, klimaxerantz bilakatu nahi da, esku-hartze birsortzaile bignun bitartez. Edonola ere, landaredi baliotsuari eusteko ahalegina izango da.”*

Hirigintza osagaiaren arabera, berriz, LPS-k ‘landa-eremuak ertzak’ soilik identifikatzen ditu udalerrian. Osagai honen araudiaren arabera, erreken maila bakoitzerako gutxieneko erretiro hauek ezartzen ditu:


Maila	Landa-eremuko ertzak
IV	50 m
II	30 m
I	30 m
0	15 m
00	Uren legeak ezarritakoa

Erretiro horiek lur naturalaren alterazioa dakarten eskuhartze guztietan aplikatuko dira (eraikuntzan, mota guztietako instalazio edo eraikuntzetan, finko nahiz desmuntagarrietan, lurberdinketa edo – mugimenduetan eta abarretan). Salbuespen izango dira nekazaritzako eta basozaintzako zereginak, obra publikoei edo azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestera bideratutako ekintzak, behar bezala justifikatutakoak.

<sup>20</sup> Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.



AASS-en aldaketa bateragarria da ibai eta erreken ertzak antolatzeko LPS-arekin, araudian Plan honen zehaztapenak jasotzen ditularik.



17. irudia: EAeko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LAPeko ingurumen-, hirigintza- eta hidrauliko osagaia. Iturria: EAeko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LAPa.

### 7.3.2. Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala<sup>21</sup>

LPS hau 2014an onartu zen behin betiko, eta antolamendu-eremua EAE osora iristen da, aldez aurretik zeuden hiri-eremuetara salbuetsita. Aldez aurretik zeuden hiri-eremuak hauek dira: dokumentu hau behin betiko onetsi zen egunerako udal-planeamendu orokorraren arabera hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak. Era berean, antolamendu-eremutik kanpo geratzen dira bitarteko hau eta ingurumen- edo lurralde-plangintza koordinatzearen ondorio diren beste eremu batzuk.

Orendaingo udalerrian, lurzoru ez urbanizagarriarentzat antolamendu-kategoria hauek esleitzen dira:

#### **Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoria:**

- Balio estrategiko handiko kategoria: Gaitasun agrológico handiko lurzoruak eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasagarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurrak hemen sartzen dira.

<sup>21</sup> Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza.



- Trantsizioko Landa Paisaia kategoria: aurreko kategoriak baino gaitasun produktibo txikiagoa duten eremu landuak daude (malda handiagoak), edo landazabal-eremuak, belardiz eta haiekin mosaiko eran antolatuta dauden baso-unada txikiz estalita. Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude. Bokazioz, haien erabilera bi horietako bat izaten da.

Zona horietan, lurzoruen gaitasun agrologikoa mantenduko da. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta haiekin osagarri diren eta nekazaritza-paisaiak eta ekosistemak zaintzen direla bermatzen duten gainerako erabilerak mantenduko dira.

#### **Mendia goikategoria:**

- Basozaintza kategoria: Hauen egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabilera-bokazioaren arrazoiengatik (arriskuak, arroen babes, eta abar) zuhaitz-estaldura izateko bokazio argia daukaten lurrak sartzen dira hemen. Baso autoktonoak (natura-interes handia izateagatik) eta espezie aloktonoen landaketak (hemen, radiata pinua aipatu behar dugu, daukan hedaduragatik) sartzen dira. Eremu hau da udalerraren azaleraren gehiengoa harzten duena.


#### **Ingurumenaren hobekuntza kategoria**

- Ingurumenaren hobekuntza kategoria: Degradatutako eremuak, lurzoru urrikoak edo gaur egun higadura handia dutenak dira. Haietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira lehenbailehen, baliabidea galtzen ez jarraitzeko. Udalerraren ipar-mendebaldean kokatzen da orban bat, Ibiur urtegiaren eskubiko ertzean.

LPS honek **Lurrazaleko Urak Babestea kategoria** aipatzen badu ere, kategoria hau EAEko ibai eta errekek eta haien babes-eremuek osatzen dutela dio eta beraz, EAEko Ibai eta Erreken Bazterrak Antolatzen dituen LPSan ezarritako bete beharko dela (ikusi 7.4.1).

LPS-k baldintzatzaile gainjarriak definitzen ditu eta Orendaingo udalerraren kasuan “higadura jasateko arriskua duten tokiak” agertzen dira. Udalerraren ipar-ekialdean 8,5 ha sailkatzen ditu, eta gaur egun Ibiur urtegia dagoen tokian 1,1 ha.

Kontuan hartu behar da, Orendaingo Hiri Antolamenduko Arauen Testu Bateratua, 2003.urtean onartu zela, eta beraz, LPS honen aurretiazkoa dela. AA.SSetako lurzoru ez urbanizagarriaren zonaketan ez dira zehatz-mehatz LPS-ak identifikatzen dituen kategoriak jasotzen. Balio estrategiko handia duten eremu gehienak AA.SSetan D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko gunearen barnean sartzen da. Gainerazko eremua, hiri eremua, errepideak eta lurrazaleko urak eta hauen babes zona alde batera utziz, D.10 Landa zona arruntaren barnean sailkatzen da.



18. irudia: Nekazaritza eta basozaintzako LPS-ko lurzoru ez urbanizagarriko antolamendu-kategoriak eta baldintzatuak gainjarriak. Iturria: Nekazaritza eta basozaintzako LPSa.

LPS-ak Erabilerak antolamendu-kategorietan arautzeko duen matrizean (edo antolamendu-matrizean), lurraldean izan daitezkeen erabilerak zerrendatzen dira, antolamendu-kategorietan ezartzea arautzeko asmoz.

Hurrengo taulan lurzoru ez urbanizagarriko kategoria bakoitzean erabilerak arautzen dira. AA.SSen aldaketak eragin ditzakeen erabilera desberdinak azaltzen dira:

10. taula: AA.SSen aldaketak eragin ditzakeen jarduerak zein antolamendu-kategorietan egongo liratekeen baimenduak. Iturria: EAEko Nekazaritza eta basozaintzako LPS-ko erabilera matrizea.

ERABILERAK	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK				
	NEKAZARITZAKO NAHIZ ABELTZAINZAKO ETA LANDAZABALEKOA		MENDIA	INGURUMENAREN HOBEKUNTZA	GAINAZALEKO UREN BABESA
	Estrategikoa	Trantsiziozko paisaia	Basoa		
LEHEN MAILAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA					
Nekazaritzako praktikak	1	1*	2a*	3	2*
Nekazaritzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a	2a*	3a*	3	3
Abeltzaintzako praktikak	2	2	2*	2*	2*
Abeltzaintza-ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	2a*	2a*	3a*	3	3
Basozaintzako praktikak	2a*	2*	1*	1*	2*
Basozaintzako ustiapenarekin zerikusia duten eraikinak	3a	2a	2a	3	3
Nekazaritzako industriak	2a**/3a**	2a	3a	3	3

ERAIKUNTZA-ERABILERA					
Ustiaguneari lotutako egoitza isolatua	2a*	2a*	3a	3	3

**1 Egokia:** Zona baten erabilera egokia zona horretan nagusitzen den erabilera da. Erabilera hori, gainera, aipatu zonaren ezaugarria da, ikuspegi funtzionaletik eta fisikotik.

**2 Onargarria.**

**2a Onargarria:** Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jardun-tresnak»).

**3 Debekatua**

**3a** Erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan. Salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berriaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jardun-tresnak»).

Udal-plangintzak ezingo du onartu aurretik badauden guneetan oinarritzen ez den hazkunderik, LPParen berariazko definizioa izan ezean.

\*: LPS honetan zehaztasunak dituzten edo foru-antolamenduak zehaztu beharreko nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak.

\*\* : Balio Estrategiko Handia kategorian, Arabako Erdialdeko eta Guardiako eremu funtzioaletan (2a) EAEko gainerako lekuetan (3a) dutena ez bezalako araubidea dute nekazaritza eta basozaintzako erabilerek.

Arau subsidiarioen aldaketatik eratorri daitezkeen jarduerak Nekazaritza eta basozaintzako LPS honek antolamendu kategoria bakoitzerako ezartzen duen araudia bete beharko da, erabilera-matrizeari jarraiki.

7.3.3. EAEko Hezeguneen LAPa

Hezeguneen LPSak, behin betiko onarpena uztailearen 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez izan zuen, eta urriaren 30eko 231/2012 Dekretuarekin bidez aldaketak jasan zituen. LPS honek, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zehaztapenak garatzen ditu, EAEko hezeguneen inbentarioaren eta sailkapenaren bidez, eta antolakuntza espezifiko behar duten hezeguneetan gune horien gaitasunaren arabeko erabilerak eta jarduerak arautzearen bidez. Halaber, LPSak gomendio eta irizpide orokor batzuk ematen ditu, inbentariatuak hezegune guztiak babesteko.

Ibiurko urtegia ez da aurkitzen Plan honek inbentariatuak hezeguneen artean. Beraz, AA.SSen aldaketak ez du inolako eraginik izango EAEko Hezeguneen LAP-ean.

7.3.4. Gipuzkoako bizikleta bideen sarea LPSa

LPSaren behin betiko onespeneraren dokumentuak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzako Sarea (GBBOS) sortzea proposatzen du, egun erdizka egin dena. GBBOSaren helburu nagusia da bizikletaren erabilera hiri barruko zein hirien arteko eguneroko garraioan integratzea, horrenbestez, motorrik gabeko mugikortasun modu hau indartzeko eta sendotzeko. Gainera, GBBOSak izaera egituratzailea ere badu, Lurralde Historikoko eskualde, eremu funtzional eta hiri-inguru nagusi guztietatik igaro eta horiek konektatzen baititu. 439 kilometroko luzera du, eta bederatzi ardatz nagusitan egituratuta dago.

LPSak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen bideguneak ezartzen ditu, baita kudeaketa eta titulartasuna ere foru-administrazioarako, eta eskusiboki zedarritu egiten da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareko (GBBOFS) datozen bidegune, adar eta elementu funtzionaletara. Era berean, herriek planteamendua egokitzea derrigortzen du, bizikleta bideak lurzorua kalifikazioan sartzeko: Bizikleta bidezko komunikazio sistema orokorra, lurzoruen erreserba eta hornikuntza egokia bermatzeko, eta, honela, bizikletentzako azpiegitura eraginkorra bideratzeko, antolaketa irizpideak errespetatuta. Kalifikazioari jarraikiz, definizioak hirigintza-antolamenduko tresna guztiak lotzen ditu.

Bizikleta bideen LPSak ez du eragin zuzenik Orendaingo udalerrian; 3. Ibilbidea I-3 Donostia-Beasain udalerraren iparraldetik (Alegia, Ikaztegieta, etab.) pasatzen da Oria ibaiaren ibilbidea jarraituz.

#### 7.4. Udal plangintza

Orendaingo Hiri Antolamenduko Arauen Testu Bateratua Diputatuen Kontseiluak 2003ko uztailaren 29ko batzarraldian onartu zuen eta 2003ko urriaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 197.zenbakian argitaratu zen.

Indarrean dagoen plangintzak ez die hiritarren gaurko beharrei erantzuten eta haiek egokitze txosten honetan balioesten den aldaketa proposatzen da.

Arau subsidiarioen aldaketaren proposamenak, lurzoru ez urbanizagarriari eragiten diote eta ondorengo aipatzen diren hauek Arau Subsidiarioen ordenantzetan ezarritakoak baldintzatuko ditu:

- “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan” egun dauden nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak handitzea, salbuespen gisa, betiere, D.10 Ororen Landa guneak kalifikaziodun lurretan handitze hori burutzea teknikoki eta ekonomikoki bideraezina dela justifikatzen bada.
- Baserri berrien eraikuntzari dagokionez, laborantza ustiapen berria gauzatzeko lursaiak gutxienez indarrean dagoen legediak lurra lantzeko unitate minimo bezela finkatutakoa (1 ha) izango da (5 ha AA.SSetan). Eraikina duen lursailaren gutxienerako azalera 5.000 m<sup>2</sup>-koa izango da (3.000m<sup>2</sup> AA.SSetan).
- Landetxe eta nekazaritza ustiapen trinkoak eraikitze eta eraikinaren gehienezko okupazioa aldatu egiten da; 10.000 m<sup>2</sup> baino gutxiago duten lursailak gehienez %15 erabili ahal izango dute ustiapenak eraikitze; 10.001 m<sup>2</sup> eta 60.000 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duten lursailaren %10 erabiliko da eraikitze, beti ere gehienez 5.000 m<sup>2</sup>; 60.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duten lursailen %7 okupatu ahal izango du eraikinak, maximoa 8.000 m<sup>2</sup> izanik.

Beraz, proposatutako aldaketa hauek, lurzoru ez urbanizagarriari baserri, landetxe eta nekazaritza ustiapen gehiago eraikitze ahalmena ematen dute. Horrez gain, indarrean dagoen araudiak baimentzen ez duen eremuan, “Nekazaritza eta paisaia babesteko guneeetan”, aurkitzen diren ustiapenak handitzeko aukera zabaltzen du, salbuespen gisa, eta bestelako guneeetan ezinezkoa denean.

*11. artikuluan Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera ezartzen da. Proposatutako aldaketak eragin ditzaketen bi eremu bereizten dira 11.2.D. Landa Guneak lurzoru hiritarezinean: D.10. Ororen Landa guneak eta D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak.*

Eraikuntza baldintzen inguruan ondorengoa adierazten da *D.10. Ororen Landa guneak* eremuan:

*D.10. Ororen Landa guneak*

*-Eraikuntza baldintzak*

*Ohiko abeltzaintza, nekazaritza edo landa jarduerak garatzeko erabiltzen diren lurak.*

*Antolamendutik at geratzen dira industria jarduera guztiak, Lur Hiritarrezinean ezartzeko baimena dutenak ezik.*

*Lur Hiritarrezinari dagokion hirigintza-araudia landa lurretan baimendutako erabilera eta eraikinak argitasun handiz arautuko ditu. Halere, bizitegiei dagokienez, ustiapena berriei erantsitako etxebizitzaren eraikuntza baimenduko da soil soilik, edo betebeharrak berriekin bat datozen lehengo etxebizitzak.*

*Egungo baserriak euren onera ekartzeko lanek lehentasuna izango dute, jarraian horiek etxebizitza gisa erabili ahal izateko. Arau hauetan baserriko 4 etxebizitza eraikitzearen eskubidea xedatzea proposatzen da, horretarako Araudi berezian irizpideak finkatzen dira –egungo eraikinaren azaleraren eta gutxienezko lursailaren zabaleraren arabera–, banaketa gauzatu ahal izateko.*

*Ustiapena berriei dagokienez, ustiapena horri atxikitako etxebizitza gauzatu ahal izango da kasu horietan ezarritako baldintza orokorrak betetzen badira (aurretik ustiapena bera gartu beharra, horren bideragarritasuna), baina betiere sor daitezkeen arazo bereziak kontuan hartzeko aukera ematen digun malgutasunez, Orendain bezalako udalerrian ditugun ezaugarriak kontuan izanik zalantzarik gabe halakoak sortuko baitira.*

*Horrez gain, landa lurren erabilerarekin loturarik ez duen bizitegia sendotzen da. Erabat hondatuta dagoela erabakitzen bada, eraikin hori antolamendutik kanpo geratuko da eta ezin izango da berreraiki, aplikatu daitezkeen hirigintzako araudiaren arabera.*

*(...)*

*Bestalde, D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneen kasuan aldiz ondorengoa ezartzen da:*

*D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneen*

*Berez, gune horiek nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta babestu egin behar dira.*

*—Eraikuntzarako baldintzak:*

*Ezin da eraikin berririk gauzatu inola ere.*

*(...)*

66.artikuluak dion moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Nekazaritza Sailak baserri bateko baso, abere edo nekazaritza jarduera “Gipuzkoako Kondaira Lurraldeko Nekazaritza Ustiapenen Erroldaritzan” izena eman duen ziurtatuko du, baserri hori legeaz nekazaritza ustiapenatzat jo dezaten.

86. artikulua. *Ubide publikoak eta babesguneak*, eraikinak eta hiritartze lanak burutzeko gutxieneko bete beharreko baldintzak araudia adierazten da, Abuztuaren 2ko 29/1985 Urari buruzko Legeari eta EAeko

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPS-ari jarraiki. Nabarmentzekoa da, Ibiur Urtegia Urtegiaren kasuan, gehienezko edukieratik gutxienez 50 m-ko tartea utziko dela, eta babeserako 200 metroko lur zerrenda, urtegiaren gehienezko maila abiapuntutzat hartuta.

Gainera, *50. artikulua* eta *71. Artikulua* bat etorri, baserri, landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoen eraikinek hondakin eta gorozki urak arazteko instalazioa eta horiek bideratzeko sistema jarri beharko dituzte derrigorrez eta instalazio horiek garbitu eta mantendu beharko dituzte.

Baserri berrien eraikuntzarako (69.artikulua) udalak eraikuntza neurriak aldatu egin ditzazke aldapa handiko lurren kasuan. Landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoei dagokienez, eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean egon behar du, gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea (71.artikulua), horrela, bide berrien prestaketa saihestu edota prestatuta ez dauden zonetan ibilgailuak pasatzea ekiditen da.

Bestalde, 71. artikulua Landetxe eta nekazaritza ustiapen trinkoek hirigunearekiko eta beste etxebizitzekiko bete beharreko gutxienezko distantziak ezartzen dira: Hirigunetik 250 metrora, Jarduera Arriskutsu, Kaltegarri, Osasungaitz eta Nekagarri buruzko Araudiak tarte handiagoa eskatzen ez badu; landetxekoa ez den beste edozein etxebizitzatik 100 metrora gutxienez; eta lursailaren mugatik 8 metrora, hain zuzen ere.

Lurzoru hiritarezinean finkatu daitezkeen eraikuntzen inguruko baldintzak jasotzen dituzten artikulua transkribatzen dira ondoren:

*47. artikulua.Kokalekua finkatzeko baldintzak.*

*Udalak eraikinen kokalekua finkatzeko baldintzak ezar ditzake, arau hauetan azaltzen diren baldintzez gain, eraikinek paisajea eta ingurumenaren izan dezaketen eragina murriztearren.*

*48. artikulua.Eraikuntzari buruzko baldintzak.*

*—Eraikinen tamaina edo bolumena eta horien egituraketa nagusia jada Orendainen dauden eraikinen ezaugarriekin bat etorriko dira. Horien bolumena sinplea izango da, estalkia 2, 3 edo 4 uretara okertua eta gehienez jota %35ko aldaparekin.*

*—Estalki horren gainean tximiniak eta bestelako osagaiak gauzatu ahal izango dira, azken horien altuera gehienez 1,20 metrokoa izanik.*

*—Eraikinak gehienez jota sestra gaineko bi solairu izango ditu, baina sotoak eta erdisotoak gehigarri gisa gauza daitezke*

*—sestrapeko solairu bakarra gehienez—, eta estalkipeko guneak ere erabili ahal izango dira.*

*—Eraikinaren gehienezko altuera 7,5 metrokoa izango da horizontalki eratutako hegalkinetan eta 9,5 metrokoa goialdean. Bi kasuetan neurri horiek eraikinak lurrarekin bat egiten duen puntuan hasita neurtuko dira. Neurri horiek ez dira aplikatuko landa esparruetan erabilitako instalazio eta eraikinetan, berauen funtzioa dela eta neurri horiek derrigorrez gainditu behar baitituzte.*

*49. artikulua.Eraikinen kanpoalde tratatzeko baldintzak.*



—Oro har, inguru honetako ohiko eraikinetan erabili izan diren materialekin bat ez datozen osagaiak baztertzen saiatuko dira, euren kolorea, itxura eta ehundura dela eta, ezberdinak gerta baitaitezke.

—Etxaurreetan material gisa entoka pintatua eta harria erabiliko dira. Espresuki debekatzen da itxurazko hormigoizko blokeak eta itxurazko adreiluak erabiltzea, azken hori erabili ahal izango delarik betiere etxaurrearen azaleraren %25a gainditzen ez badu.

—Estalkiaren materiala zeramikazko teila erabiliko da, lehentasuna izango du, baina antzeko ehundura eta kolorea duten materialak ere erabili ahal izango dira.

—Eraikin berriak burutzean ingurunearekin moldatzeaz gain jada jabego eta lursail berean dauden eraikinekin bat etorri bera izango dute

50. artikulua. Ingurunea jorratu eta hiritartze lanak burutzeko baldintzak.

—Lurzoruaren sail honetan, lursailak ez ixtea gomendatzen da, itxitura zaharrak mantentzea edo eraberritzea hobe delarik, batez ere landarezkoak edo harrizko hormatxoak direnean.

—Itxitura gauzatzekotan, honako hauek lehentasuna izango dute: Harrizkoak, zarpeatuak eta pintatuak, metalezkoak, alanbre eta hesolazkoak, eta landarezkoak. Ezin izango dira kalitate gutxiko hormigoizko hormak eraiki, ez eta zarpeatu gabeko hormigoizko blokeak erabili ere.

—.Dena dela, itxitura itsuen altuera, zuhaitz trinkoak dituztenak barne, gehienez jota 1,20 metrokoa izango da. Landarezko itxiturak 1,80 metrokoa izango dira gehienez. Era berean, lursailen itxitura guztiak horien mugen gainean gauzatu dira, bide publikoen ondoko tokietan izan ezik, bertan 1994ko azaroaren 25eko Gipuzkoako Bide eta Errepideei buruzko Foru arauak finkatutako tartea ezarriko delarik.

—Eusteko hormak bistak harri-hormez burutuko dira, kalitatezko bukaera duen hormigoia erabiltzeko aukera dagoelarik azalera murrizetan.

—Eraikin berriek paisajea izan dezaketen eragina murriztearren, Udalak bertako zuhaitzak landatzea agindu dezake eraikinaren inguruan, hots, eraikinaren 20 m<sup>2</sup>ko zuhaitz bat.

—Eraikin berriak har ditzaketen lursailek, –profesionalak ez diren nekazaritza erabilerei eta zerbitzuen azpiegitura eta ekipamenduari dagozkienak izan ezik, horietan betebeharrak ezinbesteko gertatzen baita— honako osagai hauek eduki beharko dituzte: Ibilgailuentzako sarbidea, ur hornidura, hondakin uren arazketa sistema eta horiek bideratzeko sistema, elektrizitatea eta argiak kanpoaldean. Zerbitzu horietakoren bat ez edukiz gero, ed beharrezko baldintzak ez baditu betetzen, eskatzaileak bere kabuz horren konponketa burutuko du, Udalak hala gertatzen ez bada baimena lortzeko eskariari ezezko erantzuna eman baitiezaioke.

## 8. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAK JARRAITU BEHARREKO INGURUMEN EBALUAKETA ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURAREN ZURIBIDEA

Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoari dagokion araudia honako lege eta dekretu hauetan jasota dago:

- *3/1998 legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.*
- *211/2012 dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.*
- *21/2013 legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.*

Azken honek bi prozedura ezartzen ditu: ohikoa eta sinplifikatua.

Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak ingurumen ebaluaketa estrategikoa behar ote duen eta, hala bada, zein prozeduraren bitartez aztertuko da orain:

*21/2013 legeak, 6. artikuluan honako hau dio:*

*Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua.*

**1. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa** egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako plan eta programak, bai eta haien aldaketak ere, haien prestaketa eta onespena beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, Ministroen Kontseiluaren erabaki batek edo autonomia-erkidego bateko Gobernu Kontseiluaren erabaki batek, honako egoera hauetan:

- a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute, eta honako arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen edo lurzoruen erabileraren antolamendua; edo bestela,*
- b) Ebaluazioa behar badute, Natura 2000 Sareko guneetan eragina dutelako, abenduaren 13ko 42/2007 Legean, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.*
- c) 2. paragrafoan jasota daudenak, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan hala erabakiz gero, kasuz kasu, V. eranskineko irizpideei jarraituz.*
- d) 2. paragrafoan jasota dauden plan eta programak, ingurumen-organoak hala erabakiz gero, sustatzaileak eskatuta.*

**2. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua** honako kasu hauetan egin behar da:

- a) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan aldaketa txikiak egitean.*
- b) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan, udal-mailan eremu txikien erabilera ezartzen dutenean.*
- c) Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta proiektuetan, aurreko paragrafoan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez dituztenean.*

211/2012 dekretuak, 3/1998 legearen I. eranskineko A paragrafoa aldatu eta testu honekin ordezkatzeko du:

A) Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurapean jarritako planen eta programen zerrenda:

1.– Lurralde Antolamendurako Artezpideak.

2.– Lurralde Plan Partzialak.

3.– Lurraldearen Arloko Planak.

4.– Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

5.– Sektorekatze-planak.

6.– Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plangintza orokorraren bateragarritasun-planak, hiri-antolamendurako plan partzialak eta hiri-antolamendurako plan bereziak.

7.– Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak.

8.– Honako baldintza hauek betetzen dituzten planak edo programak:

a) Herri-administrazio batek eginda edo onartuta egotea.

b) Lege- edo arau-xedapen batek edo ministro-kontseiluak edo autonomia-erkidego bateko gobernu-kontseiluak eskatuta egin edo onartuta egotea.

c) Ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak eduki ahal izatea.

d) Arlo hauetakoren batekin lotura edukitzea: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsas-lehorreko jabari publikoaren edo hidraulikoaren okupazioa, telekomunikazioak, turismoa, hiriko eta landa-eremuko lurraldearen antolamendua eta lurzorua erabileraren antolamendua.

9.– Honako plan eta programa hauek ingurumen-ebaluazio estrategikoa igaro beharko dute, baldin eta ingurumen arloko organoak, erabaki arrazoitu eta publiko medio, ingurumenari kalte egin liezaioketela irizten badio, eta aurreko puntuaren a) eta b) idatzi-zatietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

a) Lurralde-esparru txikiko eremuak erabiltzea xedatzen duten planak eta programak.

b) Planen eta programen aldaketa txikiak.

c) 8.d) paragrafoan adierazitakoez beste arloetako planak eta programak, eta horien berrikuspenak edo aldaketak.

Ondorengo kasu hauetan, badira ezaugarri edo egoera batzuk ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharra dakartenak, ingurumenari nabarmenki eragingo zaiolako:

- a) *Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharra duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten dutenean. Plan edo programa batek legezko betebeharrak hori duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten duela joko da honako kasu hauetan: proiektuen kokaleku, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari buruz –besteak beste– irizpideak edo baldintzak ezartzen dituztenean; edo proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko legeria orokorrean zehazten diren kategorietako bati dagozkion proiektuetarako baimenak nola emango diren berariaz eta zehaztasunez ezartzen dutenean.*
- b) *Zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko eremu bati era nabarmenean eragitea gerta daitekeenean, eta, hori dela-eta, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean horientzat ezarritako araudiaren arabera ebaluazioa behar denean.*
- c) *Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenen bat duten eremuetan eragiten dutenean.*

Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak Natura 2000 Sareko guneetan eta beste natura-gune babestuetan eraginik ez duela egiaztatu da, *abenduaren 13ko 42/2007 Legeak* ezarritako baldintzen arabera (ikus 6.6 atala).

AA.SSen Aldaketaren ezaugarriak kontuan hartuz ondorioztatzen da, aldaketak ez duela ezarriko Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez beharitutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua, hau da, *abenduaren 9ko 21/2013 Legearen* I. eta II. eranskinetan, edo *otsailaren 27ko 3/1998 Legearen* 47. artikuluan eta I. eranskinean sartutako proiektu horiena.

Beraz, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak, *abenduaren 9ko 21/2013 Legean* eta *otsailaren 27ko, 3/1998 Legean*, Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura jarraitu behar duten planen baldintzak ez ditu betetzen.

Hala ere, *abenduaren 9ko 21/2013 Legearen* 6. artikuluko 2.a) puntuan ezartzen den moduan, plan baten aldaketa txikia izango litzateke, Orendaingo Arau Subsidiarioena, plan honi Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa dagokiona. Ondorioz, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala **ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuaren** prozesua jarraitu beharko du.

Gainera, Orendaingo Udalak, Organo sustatzaileak, arau aldaketa honek ingurumen-ebaluazio estrategikoa igaro behar ote duen kontsulta egin dio Ingurumen-organoari (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia). Zuzendaritza honek ondorioztatzen du aldaketa horrek ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraitu beharko duela *abenduaren 9ko 21/2013 Legearen* 6.2.a) edo 6.2.c) artikuluen arabera.

Hala ere, kontuan eduki behar da ingurumen organoak, ingurumen ebaluaketa estrategiko sinplifikatuari amaiera emateko egiten duen ingurumen eraginei buruzko txostenean, Arau Subsidiarioen Aldaketak ohiko prozedura osatu behar duela ebatzi dezakeela, ingurunearen gainean eragin esanguratsuak izan ditzakeela ondorioztatzen badu.

## 9. AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK AUKERATZEKO ARRAZOIEN LABURPENA

“Zero” hautabideak Orendaingo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiariak ez aldatzea dakar, eta ondorioz, indarrean dagoen plangintzaren hirigintza-araudia finkatzea. Araudi honek ordea, mugak ezartzen ditu lurzoru urbanizaezineko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak egungo beharretara egokitu ahal izateko.

Arau Subsidiarioen aldaketarako garatutako hautabideak indarrean dagoen plangintzaren ordenantzako artikuluko batzuk egokitzea suposatzen du, ustiapenen egungo premiei erantzuteko gai izango den araudi bat sortuz.

AA.SSen aldaketatik erator daitezkeen jarduerak, baztez ere, baserri berrien eraikuntzarako finen gutxieneko tamaina 1 ha-ra murrizteak, ustiapenei lotutako eraikinen okupazioa handitzeak eta “D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneetan” egun bertan kokatuta dauden ustiapenen handitzea baimentzeak, lurzoru urbanizaezinaren okupazio handiagoa eragin dezakete, indarrean dagoen plangintzan aurreikusita dagoenarekin alderatuz.

Nahiz eta, AA.SSen Aldaketak proposatzen dituen jarduketek ingurumen balio (ur, landaredi, paisaia, etab.) eta ingurumen-arriskuen (zarata) gainean eragin potentzialak eduki ditzaketan, eraikin berrien kokapenaren araberakoa izango da hau. Hala ere, kontuan izan behar da AA.SS ordenantzak, indarrean dagoen legeriak eta dokumentu honetan proposatutako ingurumena zaintzeko programek eragin horiek saihestu edota murriztu nahi dituztela.



## 10. PROPOSATUTAKO NEURRI PREBENTIBO, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEAK, KLIMA-ALDAKETA KONTUAN IZANDA

Arau subsidiarioen aldaketaren inpaktua nagusiak identifikatu eta balioetsi ondoren, neurri prebentibo, eta zuzentzaileen proposamena egiten da, ingurumenean dituen eraginak mugatu eta txikiagotzeko helburuarekin.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSak eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritako araudia bete beharrak, eta Arau subsidiarioen ordenantzetan jasotakoak, lur gaineko uren eta Balio estrategiko handiko lurren babesa ziurtatuko du (ikusi 7.3, 7.4.1 eta 7.4.2 atalak). Halaber, Arau subsidiarioen ordenantzetan urak arazteko, paisaia babesteko, higadura-arriskua saihesteko eta ustiapen berriek zarata arazoak sor ez ditzaten, eraikuntza berriek bete beharreko hainbat baldintza agertzen dira (ikusi 7.3 atala).

Gainera, Orendaingo Hiri Antolamenduko Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren agiriak, ondorengo adierazten du: *D.20 Paisajea eta Nekazaritza Babesteko guneetako egungo nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetako eraikuntza berriek, 11.2 artikulua araberako baimentzen direnek, D.10 Orogen Landa Guneetako eraikinei ezartzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.*

Ondoren, neurri osagarriak ezartzen dira, aurreko neurriak alde batera utzi gabe:

- Interes handiko landaredia babesteko helburuarekin, hostozabalen masa naturaletan eta lehentasunezko habitat komunitarioetan eraikuntza berriak ekiditea proposatzen da.
- Lanak diarduten fasean, intereseko landarediko eremuetan lanetarako beharreko materialen edo lanetatik sortzen diren hondakinen metaketa saihestuko da.
- Faunaren mugimenduak ez oztopatzeko, ustiapen berrietan hesiak egin behar badira, hesi hauek faunarekiko irazkorrak izan beharko dute.
- Eraikuntza lanak hasi aurretik, landare-lurren geruza berariaz kenduko da, eta inguruko nekazaritza sailetan berrerabiliko da. Berrerabilerarako bildu beharko balitz, lur-pilen altuera 1,5 metrokoa izango da, gehienez. Landare-lurren bilketak ez du objektu arrotzik izango, eta ez da nahastuko indusketatik eratorritako materialekin edo material betegarriekin. Debekatuta dago makinaria erabiltzea landare-lur piloan ganean.
- Eraikuntza lanak irauten duten bitartean, ur-ibilguetara heldu daitekeen edozein isurketa saihestuko da. Ezin izango dira metatu ubideen inguruan, uren poluziorako edo bere ingurunearen degradaziorako arriskutsua izan daitekeen materialik, hondakin solidorik, obra-hondakinik edo sustantziarik.
- Nekazaritza eta basozaintzako LPSak kartografiatzen dituen "higadura jasateko arriskua duten tokiak" eremuan eraikuntza berriak ezartzea saihestu behar da.
- Baimendutako soberakin-biltegira eramango dira proiektuan sortutako indusketa-soberakinak, eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, hau da, *49/2009 Dekretua*,

*otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.*

- Sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta berariazko arauetan xedatutakoa beteko da. Beharrezko kasuan, aztertu egin beharko dira haien izaera eta helmuga zein den zehazteko. Gainera, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak *uztailaren 26ko 112/2012 Dekretuan, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena*, xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek *uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzekoa)* 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte. Itxita mantenduko dira kudeatzaileari eman arte, isurketa edo lurrunketa bidez edukia galtzea saihesteko.

- Lurrarentzako kutsagarriak izan daitekeen jarduera edo instalazioak jasan dituzten lurzoruen inbentarioak udalerrian ez du lursail identifikaturik. Dena dela, lurra lantzean kutsatuta egon daitekeen susmoa badago, ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz jardungo da, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko arautzen duena.
- Arau subsidiarioen aldaketatik erator litekeen edozein jarduerak AA.SSetan “Hirigintzako ondarearen katalogoan” ezarritakoa kontuan hartu beharko du. Hasiara batean, ez da kultur ondarean elementuen inguruko eraginik aurreikusten. Hala ere, lanek irauten duten bitartean arkeologia izaerako adierazgarriren baten aurkikuntza gertatuko balitz, Euskal Kultur Ondarearen maiatzaren 9 ko 6/2019 Legean jarritakoaren arabera, berehala informatuko behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskera eta kulturako Sailari, honek beharrezko neurriak har ditzan.
- Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-isuriei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-isuriak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.
- Airearen kalitatea babesteko helburuaz, kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura erabiliko da.

Partikula esekiak murrizteko, lurra higatu den eremuak aldizka ureztatuko dira, Obraren zuzendaritzak egokia dela hobestean. Ureztatzeen maiztasuna klimaren eta obraren jardunaren intentsitatearen araberakoa izango da; maizago egin beharko da urtaro bero eta lehorretan, edo haize askoko egunetan.

- Jasangarritasuna: AA.SSen garapenetik sortu daitezkeen eraikinentzat, eta batez ere, bizitegi-erabilera izango dutenentzat ondorengo neurriak proposatzen dira jasangarriak izan daitezen:

- Sortu daitezkeen eraikinetan argiztapen eta eguzki-aprobetxamendu baldintzak optimizatzen dituen antolamendua beharko da. Nolanahi ere, proiektuek eraikuntza-garapen jasagarria lortu beharko dute, energia-eraginkortasuneko eta ingurumen-kalitateko parametroak eraikinetan sartzearen bidez, eta horrela, eraikinen energia-eskaria murriztea, konfort-baldintza egokiak lortzea, energia berriztagarriak sartzea eta etxeko hondakinak eta eraikuntza- edo eraispén-hondakinak kudeatzea.
  - Eraikuntza-proiektuetan, ura aurrezteko eta berrerabiltzeko ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko neurri egokiak aurreikusi beharko dira, bai obren egikaritze-fasean, bai eraikia erabili eta ustiatzeko fasean.
  - Eraikin berrietan kontsumo txikiko argiztapen-sistemak erabiliko dira, eta, era berean, argi-kutsadura saihestuko dutenak.
  - Kontuan hartu beharko da eguzki-energiaren eraginkortasuna, energia-portaera hobetzeko (batez besteko tenperatura handiagoa, berokuntza-kontsumo txikiagoa, etab.) eta eguzki-argiaren aprobetxamendua (elektrizitate-kontsumo txikiagoa). Eraikinek energia berriztagarrien aukerak aprobetxa ditzatela ahalegindu beharko da (eguzkiarena, eolikoa, etab.).
  - Mugikortasunari dagokionean, AA.SSen 71. artikulua araberan, landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoen kasuan, eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean egon behar du gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea, horrela, bide berrien prestaketa saihestu edota prestatuta ez dauden zonetan ibilgailuak pasatzea ekiditen da.
- Garbiketa-kanpaina obra amaitzean: Obrak amaitzean, material soberakinak eta obran sortutako hondakinak biltzen direla bermatzen duen kanpaina bat egingo da. Indarrean dagoen legeriaren arabera izango da.

## 11. PLANAREN INGURUMEN-JARRAIPENERAKO PROPOSATUTAKO NEURRIAK

Ingurumen Zaintzako Programaren helburuak hauek dira:

1. Sortutako inpaktuaren eboluzioa eta irismena egiaztatzea.
2. Obrak sortutako inpaktua aurreikusitakoa dela egiaztatzea, eta, aurreikusi ez ziren inpaktu posibleak antzematea, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzeko.
3. Neurri zuzentzaileak modu egoki eta eraginkorrean ezarri direla egiaztatzea, eta, nahikoa ez badira, neurri berriak ezartzea.
4. Obraren zuzendaritzari proiektuaren ingurumen aspektuekin aholkatzea.

Orendaingo udala izango da ingurumen zaintzako kontrolak eta beharrezko txostenak egingo dituen:

- Obra-baimenaren kontrola: Eraikuntza-lanak hasi aurretik Orendaingo udalean eskatu beharko da obra-baimena.

Adierazlea: obra-baimena emanda

- Uren kalitatea babesteko neurrien kontrola: Eraikuntza berriek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako LPSak ezartzen dituen gutxieneko erretiroak betetzen dituztela egiaztatu beharko da.

Adierazlea: gutxieneko erretiroak errespetatzea

- Landaredia babesteko neurrien kontrola: Eraikuntza berriak hostozabalen masa naturaletan eta lehentasunezko habitat komunitarioetan kokatzen ez direla egiaztatuko da.

Adierazlea: Eraikuntza berririk ez intereseko landarediko eremuan.

- Zarataren kontrola landetxe eta nekazaritza ustiapen trinkoen inguruan: ustiapen hauentzako Arau subsidiarioek hirigunearekiko eta beste etxebizitzekiko ezartzen dituzten gutxieneko distantziak beteko direla bermatuko da: Hirigunetik 250 metrora, Jarduera Arriskutsu, Kaltegarri, Osasungaitz eta Nekagarriei buruzko Araudiak tarte handiagoa eskatzen ez badu; landetxekoa ez den beste edozein etxebizitzatik 100 metrora gutxienez; eta lursailaren mugatik 8 metrora, hain zuzen ere.

Adierazlea: gutxieneko distantziak betetzea eta zarata arazoen falta.

- Higadura-arriskua murrizteko eraikinen kokapen egokia: Landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoen kasuan, eraikina hartu behar duen lursailak bide nagusiren baten aurrean dagoela egiaztatuko da, gutxienez 30 metrora, baldin eta ez bada nekazaritza ustiapenekin lotutako landetxea. Eraikin guztien kasuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak definitzen duen "higadura jasateko arriskua duten tokiak" eremuan eraikuntza berriak ezartzea saihesten dela bermatuko da.

Adierazlea: Bide nagusiren bateko gertutasuna. Eraikinik ez "higadura jasateko arriskua duten tokietan".

- Integrazio paisajistikoko neurriak betetzen diren adierazteko kontrola: Eraikinak paisaian eragin minimo izango duten lursaileko eremuetan kokatzen direla bermatuko da, eta Arau subsidiarioaren araudiak dioenarekin bat datozela.

Adierazlea: Eragin paisajistiko txikia duten lursailaren eremuetan kokatuta eraikinak, eta AA.SSetako 47.,48., 49. eta 50. artikulua ezartzen dutenaren arabera eraikiak.

- Lanen garapenaren kontrola: lanak ingurumen praktika onen arabera eta indarrean dagoen legedia (soberakinak, isurketak, zarata, hautsa, etab.) betez egiten direla egiaztatuko da.

Adierazlea: Soberako lur eta hondakinen kudeaketa egokia, isurketen falta, zarata arazoaren gabezia, etab.

- Eraikuntzen jasangarritasunaren kontrola: Eraikuntza-proiektuek jasangarritasun energetikorako neurriak aurreikusten dituztela egiaztatuko da, ur kontsumoaren, energia berriztagarrien, argi-instalazioen eta mugikortasunaren eraginkortasunari dagokionez.

Adierazlea: ur-kontsumo egokia, energia berriztagarrien erabilera, kontsumo txikiko argi-instalazioak, argi-kutsadura gabe, eraikinak egun dauden bideen inguruan berriak sortu gabe.


- Lanen bukaera adierazten duen ziurtagiriaren kontrola: Eraikuntza lanak emandako obra-baimenaren arabera egin direla egiaztatuko da. Gainera, lanen eremua ikuskatuko da ingurunearen garbiketa egokia egin dela eta obra-faseko material eta hondakinik bertan geratzen ez dela bermatzeko. Horrez gain, lanetan sortutako hondakinak indarrean dagoen araudia jarraituz kudeatu direla kontrolatuko da.

Adierazlea: Obra-baimenarekin ados egindako lana, hondakinen falta lanen eremuan eta inguruan, indarrean dagoen araudia jarraituz eginiko hondakinen kudeaketa.

Oiartzunen, 2019ko ekainaren 28an



Fdo. Tomas Aranburu Calafel  
Nekazaritza ingeniari teknikoa eta  
Lurralde-antolakuntzan aditua




Fdo. Alexandra Egunez Zalakain  
Biologian graduatua eta  
Biodibertsitaterako, Funtzionamendu  
eta Ekosistemen Kudeaketa Masterra



## I.ERANSKINA. PLANOAK

1.PLANOA. INGURUMEN BALDINTZATZAILEAK


2.PLANOA. NATURGUNE BABESTUAK





Egilea	Izenburua	Izendapena	Data	Eskala	Planoa
  Alexandra Egunez	Orendaingo AA.SSen Aldaketa Puntualea, Lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko baldintzak aldatzen dituen Ingurumen-agiri estrategikoa	Ingurumen baldintzatzailleak	2019ko ekaina	A3: 1/12.500 S.G.R.: ETRS89	1





*Egilea*      *Izenburua*      *Izendapena*      *Data*      *Eskala*      *Planoa*

 	<p>Orendaingo AA.SSen Aldaketa Puntuala, Lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko baldintzak aldatzen dituena Ingurumen-agiri estrategikoa</p>	<p>Naturgune babestuak</p>	<p>2019ko ekaina</p>	<p>A3: 1/25.000 S.G.R.: ETRS89</p>	<p>2</p>
--	---	----------------------------	----------------------	--	----------